



# Udalaren II. Gazte Plana

2010-2012

## II Plan Joven Municipal

Euskara

Castellano



**Herritar Harremanen Saila**  
Gazteria Zerbitzua

**Departamento de Relaciones Ciudadanas**  
Servicio de Juventud



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

## **SARRERA**

Hemen aurkezten dizuegu Gasteizko Udalaren II. Gazte Plana. Erakunde, elkarte, talde politiko, gazteria alorreko eragile eta udal sail eta zerbitzuetako ordezkari... guztira, 70 pertsona baino gehiagok hartu du parte; hausnarketa hau horien talde-lanaren eta konpromisoaren emaitza da.

Ez gatoz hutsetik. Gure abiapuntua bi oinarritan sustraitzen da: batetik, gazteekiko lanean dugun eskarmentuan, baina, batez ere, Udalaren I. Gazte Planaren ebaluazioan, zeinak honako elementuak eman dizkigun:

- Gasteizko gazteei buruzko informazioa, eta orain arte alor horretan jorratu dugunari buruz beraiek eginiko balorazioa; horrek guztiak, beraz, egoeraren azterketa global eta panoramikoa eskaintzen digu.
- Gaztediaren errealitateak planteatzen dizkigun etorkizuneko erronkei buruzko ikuspegia.
- Gazteen errealitatean eragiteko moduei buruzko irizpideak, zeharkako ikuspegi batetik abiatuta.

Ezin izango genuke dokumentu hau osatu Planaren lanketa prozesuan parte hartu duten horrenbeste pertsonaren lan eta errealitatearekiko konpromisoa izan ez bagenu.

Hona Udal Gazte Planaren ezaugarri nagusi batzuk:

- . Gazteengan eta beren errealitatean oinarri hartuta planifikatu da.
- . Udalaren jardueraren alor guztietan (sektorekako eta zeharkakoetan), eta esparru anitzetan (politikoa, elkarte-eremukoa, eta teknikoa) osatu da.
- . Planifikazioa, pertsona eta talde partaideei premiazko edo lehentasunezko iruditu zaizkien alderdietan aurrerapauso zehatzen bidez errealitatean eragin asmoz osatu dela.
- . Tresna malgua da, nahitaez etengabeko egokitze prozesuan egongo dena, betiere gazteen errealitatearen eboluzioaren, errealitate horren ezagutza eta analisiaren, eta egindako lanaren jarraipena eta ebaluazioaren arabera.
- . Udalaren beste plan batzuekin koordinatu behar da, horietan guztietan gazteekiko helburu eta lan-moduak jorratzen diren aldetik, esaterako: Euskararen erabilera normalizatzeko plana, Mugikortasun iraungarrirako plana, Berdintasun plana, Drogei buruzko tokiko plana, Immigrazio plana...

## **PRINTZIPIO GIDARIAK**

Printzipio gidariak alor guztietan Udal jarduera planifikatu, burutu, eta jarraipena eta ebaluazioa egiteko oinarritzko irizpideak dira.

Planaren edukien iradokizun- eta informazio-iturriaren funtsezko irizpideak dira, nahiz eta ez diren ageriko egiten; gainera, Gazteriaren alorreko politiken nahitaezko testuingurua eratzen dute. Printzipio horietako batzuk lerroetako ekintza jakin bihurtuko dira.

## **ZEHARKAKOTASUNA**

2008koa da “**Zeharkakotasuna, hobetzeko bide gisa Vitoria-Gasteizko Udalean**” izeneko agiria. Bertan jasotzen den ereduari jarraiki, Udalaren II. Gazte Planak herritarren arteko sektore jakin bateko beharrei erantzun nahi die, gazteenei hain zuzen. Izan ere, gazteen kolektiboak sinergiak aprobetxatu, baliabide erabilgarriak optimizatu, eta azken emaitza kalitate handiagoz jantziko duten jarduera integralak eskatzen ditu.

Zeharkakotasuna antolakuntza osoaren egiazko engaiamendua ziurtatzen duen kontzeptua da, atalaren espezializazioa edozein izanik ere, arlo, ikuspegi, arazo publiko... jakin batean lan egiteko, antolakuntzaren atalkako egituretako bakar batek bere gain hartu ezin dituen helburuak lortu asmoz. Bada, halaber, antolakuntzarako bitarteko bat, estrategiak, tresnak eta bitartekoak garatzea xede duena, antolakuntzaren sektorekako egituraren barruan, oso errealitate konplexu baten eskakizunei hobeto egokitzea ahalbidetu asmoz.

Testuinguru horretan, zeharkakotasuna gure hiria osatzen duten pertsonen alderdi anitzeko errealitate konplexuaren aurrean udal antolakuntzaren erantzuna hobetu asmoz jarduteko funtsezko estrategia gisa agertzen zaigu.

Zeharkakotasuna ez da mugatzen udal barruko esparrura; izan ere, Plan honek erakundeen arteko eta –nola edo hala– gure hiriko gazteekin diharduten beste gizarte-eragileekin batera lanerako bideak proposatzen ditu.

## **BERDINTASUNA**

Printzipio honen xedea genero-ikuspegiaren arabera gaur egun berdintasunezkoa ez den egoera (nola gizarteari begira oro har, hala Gasteizko gazteen artean ere) gainditzeko laguntzea da. Oraindik ere berdintasuna urratzen duten egoerak daude gure artean, bereziki rol sozialei eta lan munduari dagokienean.

Egoera horiei aurre egiteko sortu zen Gazte Planarekin harremanetan dagoen Berdintasun plana; hartara, koordinazio lana daramagu aurrera Gasteizko gazteen artean berdintasun eza eta harekin loturiko egoerak urritu asmoz.

Berriaz egoera horiei aurre egiteko asmodun neurri eta ekintzak alde batera, generoen arteko berdintasunaren printzipioa II. Gazte Planean dauden ekintza guzti-guztietan ageri da.

## **IRISGARRITASUNA**

Bestalde, aukera-berdintasuna ez dagokio soilik genero-ikuspuntuari, aintzat hartzen du baita gazte guztiei –bakoitzaren egoeraren gainetik– aurreikusitako jardueretan parte hartzeko aukera eskaintzeko ahalegina. Horrek esan nahi du Udalaren II. Gazte Planak bermatu egin behar duela bultzatuko dituen jarduera guztiak traba arkitektonikorik gabeko espazioetan eskainiko direla, nahi duen pertsona orori bertaratu eta parte hartzeko aukera emateko moduan, berdintasunezko egoeran.

## **PARTE HARTZEA ETA ERANTZUNKIDETASUNA**

Eragileen parte-hartzea Plana eratu eta burutzerakoan gauzatzen da, eta lan egiteko moduei eta metodologiei ere eragiten die. Hartara, gazteak beraiantzako eginiko

politiken parte-hartzaile izan eta senti daitezen lortu nahi dugu. Gero eta gehiago dira gazteen ekarpen eta iritzietan, inplikazio eta konpromisoan oinarritzen diren programak.

Prozesu horretan inplikatzeko dira bai eremu sozial eta politikoa (Gazte Planaren Jarraipen Batzordearen bitartez), baita teknikoa ere (Udalaren hainbat sailen parte-hartzea); planifikazioaren hiru jarraipen- eta kontrol-mailak betetzen dira.

Aldiz, erantzunkidetasunak gazteentzako hiri hobea eta atsegina aldatzeko lan egitea guzti-guztion zeregina dela esan nahi du, eta, hain zuzen ere, prozesu horretan eragile eta protagonista izan behar dutela gazte horiek, eta ez parte-hartzaile huts. Plan honek parte-hartzaileen parte-hartzea eta konpromisoa eskatzen du, beren egoeran eragingo badu.

Hiria hezkuntza-espazio pribilegiatua da; bertan, denok gaude inplikaturik, denok dagokigu erantzukizuna.

## **ERRESPECTUA ETA ELKARBIZITZA**

Ez dago "gazteriaz" kolektibo homogeneoa bailitzan hitz egiterik, baizik eta gazteek: gizatalde heterogeneo eta anitza da, beraien artean gizarte-egoera desberdinak daude, eta bizitza-proiektu desberdinak dituzte. Planak proposatzen dituen estrategiak errealitate horretara egokitzen dira, eta jardura anitzak eskaintzen dizkie behar desberdinak dituzten gazteei. Egoera-aniztasun egunetik egunera gero eta nabarmenago horrek estrategia berezitu eta desberdinak osatzera eramango gaitu.

Horregatik, garrantzitsua deritzogu jatorri kultural, eta aukera politiko, sexual, erlijioso eta abar desberdineko pertsonen arteko elkarbizitza aztertzeari. Gure ustean, lehen mailako garrantzia dauka gazteek errespetuzko eta elkarbizitzazko kultura bat eraikitzea, kultura mestizoa alegia, gizatalde horren baitako identitate-elementu anitzak bildu eta barneratuko dituenak.

Bestalde, belaunaldien arteko harremanen esparruan, errespetuaz eta elkarbizitzez aritzean, "persona helduek" gazteekiko eta alderantziz, norabide bietan, aplikatu behar da. Horretarako, nahitaez biztanle guztientzako kolektiboari buruzko irudiaren gaineko, eta hirian duen inplikazio eta parte-hartzeari buruzko hezkuntza programak sustatu behar dira. Gizarteak gazteekiko duen ikuskera eta iritziak asko baldintzatzen du herritar gisa izango duten garapena, bai eta gizarteak, oro har, gizarteari buruz duen irudia.

## **IRAUNGARRITASUNA**

Ohitura osasuntsuak dituen gizarteak, elkartasunezkoak, arduratsua eta bere garapena aintzat hartzen duena... horra zer den gizarte iraugarri eta konprometitua, ez soilik ingurumenarekin, baita etorkizunarekin ere. Hiri-proiektuarekin bat, ezin dugu ahaztu gazteak hiriko iraunkortasun-faktore handienetakoa direla; horregatik, iraungarritasuna Gazte Plan honetan jasotako edukietako ardatz egituratzaileetako da.

## **EUSKARA**

Euskararen erabilera sustatzerakoan lehentasun handieneko kolektiboa gazteria da; beraz, euskararen erabilera izan beharko da Planak bideratuko dituen ekimenak zuzenduko dituen irizpide nagusienetako bat. Beraz, Planaren jardueretan euskararen presentzia alor honetan Euskara planak eskatzen duenera egokituko dela bermatu behar da.

Euskararen erabilera normalizatzeko planaren eta Gazte Planaren helburu eta jarduerak xede bat bera eskuratu asmoa dute, alegia, Gasteizko gazteek adierazpide-eta komunikazio-tresna gisa euskara erabil dezatela.

Hiri gazte berdintasunezkoa  
Hiri erraz ibili eta mugitzekoa  
Hiri parte-hartze eta erantzundiketasuna sustatu zalea  
Hiri gazte eta elkarbizitzazkoa  
Hiri gazte hezgarria  
Hiri gazte iraungarri eta konprometitua  
Hiri gazte erakargarria, aukerez betea  
Hiri gazte eta osasungarria

Hitz bitan esanda: ***Hiri gazte bizia***

## UDALAREN II. GAZTE PLANAREN ABIAPUNTUA: ERREALITATEAREN AZTERKETA

### UDALAREN GAZTE PLANA, ERREALITATEA EZAGUTZEKO TRESNA

Aurreko plana gure hirian abian jarritako lehena izan zen neurrian, bertako jardueretako batzuk Gasteizko gazteen egoera errealaz ezagutzeko tresna izan zaizkigu, dela zuzenean (azterlanak), dela zeharka, abian jarri genituen zerbitzuen bidez.


Kontuan hartu behar da gazteen kolektiboaren ezaugarri nabarmenena aniztasuna dela. Horregatik, ikuspegi panoramikoak aurkeztuko dugu hemen, egoera anitz eta desberdinak uztartuko dituen, eremu guztietan garatuko dena... Hartara, adierazle jakin batzuen bidez kolektiboa talde gisa identifikatzen duten hainbat ezaugarri orokor eta konpartitu jaso ditugu. Bestalde, hainbat aldagaien bitartez (adina, generoa, ikasketa-maila eta jatorria) bizi-estilo eta -egoera desberdinak islatzen dira.

Azterlan honetan, funtsean, EHUko Soziologia 2 sailaren ikuspegia erabili izan dugu. Gurekin lankidetzan aritu dira Soziologia 2 saileko kideak, errealitateari Gizarte Zientzien ikuspuntutik helduta: aurretiaz Gazte Planaren baitan egindako azterlanetako datuak bildu dituzte, eta Gazteen Euskal Behatokiko eta beste erakunde batzuetako datuekin osatu.

### Biztanleria gaztea, biztanleria osoaren aldean: urritzen ari den gizataldea

1. grafikoak Gasteizko biztanleria islatzen du, adin-talde eta sexuaren arabera. Estatuan oro har bezala, gurean ere gazteen pisu demografikoa gainbeheran dela ikusten da biztanleria osoaren aldean. 30 urtetik beherakoak % 31 baino ez dira guztira, eta 15 urtetik beherakoak, % 12,8 baino ez. 15 eta 29 urte bitarteko taldea da diagnostiko honen xedea, biztanleriaren % 18.

Biztanleria heldua 30 eta 44, eta 45 eta 64 urte bitarteko adin-tarteetan metatzen da. Egoera hori ikusita, Gasteiz hiri zaharkitua dela esan dezakegu, baina ez soilik orain, gaur egun, aurrerantzean ere joera horixe izango dela ematen baitu.



Iturria: Udal errolda, 2008ko urtarrilaren 1a. Vitoria-Gasteizko Udala.

2010eko datuak eskuan, urtearen lehen egunean (2010-I-01) 14 eta 29 urte bitarteko 41.619 pertsona zeuden (20.215 emakume, eta 21.404 gizonezko); beraz, adin-tartearen portzentajea % 17,3ra erori da bi urteko epe laburrean. Bestalde, adinean


behera egin ahala, orduan eta pertsona gutxiago dago adin bakoitzeko; hara: 30 urteko gazteak 4.024 baino ez dira. 14, 15, 16, 17 eta 18 urteko gazteei dagokienez, ez da urtekako multzo horien artean bakar bat ere 2.000 pertsonen mugara iristen, eta guztietan txikiena 14 urteko gazteena da: 1.841 pertsona guztira.

### **Biztanleria gaztearen banaketa, adin-talde eta sexuaren arabera.**

20 urtetik beherakoen taldeak behera egin du nabarmen, "baby boom" belaunaldikoekin (30 eta 50 urte bitartekoak) alderatuta. Hainbat arrazoik azal dezake ugalkortasun-joeran izandako aldaketa, betiere biztanleen jokabide sozial eta kulturaletako aldaketekin lotuta: emakumeak lan merkatuan sartu dira, eta horren ondorioz atzeratu egin da lehen haurra izateko adina, eta urritu bikote bakoitzeko seme-alaben kopurua. Gainera, ongizate- eta bizi-maila igo egin dira, sekularizazio-prozesua gertatu da, eta elkarrekin bizitzeko eta senide-harreman molde berriak garatu dira.

Bestalde, egiturazko zenbait egoerak ere oztopatu egiten du emantzipaziorako bidea, esaterako lana eta etxebizitza eskuratzeko arazoak. Arrazoi horiek guztiek eragina dute gizartearen aldaketa demografikoen gainean.


2. grafikoan Gasteizko biztanleriaren gainbeheraren benetako dimentsioa ikusten da, eta nola pixkanaka zahartzen ari den. Aurrerantzean ere joera nagusia horixe izatera, alde esanguratsurik gabe, nabarmen jaitsiko litzateke datozen hamarkadetan biztanle-kopuru orokorra, eta gogor eragingo lieke zerbitzu, azpiegitura eta ekipamenduak onik zaintzeko zerbitzuei.



Iturria: Udal errolda, 2008ko urtarrilaren 1a. Vitoria-Gasteizko Udala.




Beharakada demografikoa agerian dago baita 3. grafikoan, zeinak gazteria hiru adin-tartetan sailkatuta erakusten digun. 15 eta 19 urte bitarteko gazteen multzoa, 25 eta 29 urte bitarteko gazteen multzoaren erdia da ia-ia.



### Biztanleria gaztearen banaketa, jaiolekuaren arabera.

Azkenaldian immigrazioak nabarmen eragin die demografikoki gazte-taldee. Atzerritar jatorriko biztanleria (4. grafikoa) % 9,7ra iritsi da, EAEkoa baino portzentaje handiagoa. Kontuan hartu behar da atzerrian jaiotzea eta nazionalitatea bi aldagai desberdin dira.

Nazionalitateari erreparatuz gero, biztanleria atzerritarra % 8,4an dago. Gorago azken urteotako aldaketa demografikoak eta biztanleriaren zahartze-prozesua aipatu ditugu, baina kontuan hartu behar da immigrazioak aldarazi egin ditzakeela dinamika horiek. Azpimarratu beharreko kontua da, bi arrazoiengatik: batetik, atzerrian jaiotako biztanleria % 17,1ekoa da ikerlan honek xede dituen adin-taldekoen artean, eta pertsona-multzo horrek bira eman diezaioke Gasteizko biztanleriaren zahartze-prozesua. Bestetik, 14 urtetik beherakoen multzoan ere presentzia nabaria dute, nahiz eta maila txikiagoan.




Iturria: Udal errolda, 2008ko urtarrilaren 1a. Vitoria-Gasteizko Udala.



15 eta 29 urte bitartekoen artean atzerrian jaiotako biztanleen portzentaia hazi egin da, berton jaiotakoen aurrean. Oso kontuan hartzekoa da lan-merkatuan sartzeko adinean dagoen –edo dagoeneko sartua den– biztanleriaz ari garela, eta adin-tarte hauetan duten pisuak bikoiztu egiten duela beste batzuetan dutena.


Horago Gasteizko biztanleriaren zahartze-prozesua aipatu dugu, baina atzeritarren kopuruaren hazkuntzari esker aldarazten ari da joera hori.



Iturria: Udal errolda, 2008ko urtarrilaren 1a. Vitoria-Gasteizko Udala.

Atzeritar gazteen sexuaren arabera banaketak islatzen dituen alde eta desberdintasunak zenbait faktoreren arabera azal daitezke, hala nola: lan-merkatua, familia berriz elkartzea, jatorriko herrialdeko ohitura sozial eta kulturalak...

6. grafikoa ondo ikusten da jatorri-desberdintasuna: Latinoamerikako zenbait herrialdeetako (Kolonbia, Ekuador eta Brasil) emakumeen kopurua gizonezkoena baino handiagoa da. Marokoar eta portugaldarren kasua kontrakoa da, gizonezkoak nagusitzen baitira.



Iturria: Udal errolda, 2008ko urtarrilaren 1a. Vitoria-Gasteizko Udala.


## Gazteak ezagutzaren gizartean

Formazio-mailaren hazkuntza da adin-talde nesken ezaugarrietako bat. Ikasketa maila altuagoa da emakumeen artean, eta eskola porrota, aldiz, handiagoa gizonezkoengan. Hezkuntza-adierazleak oso positiboak dira Estatuko batez bestekoekin alderatuz gero:

- Eskola uztearen maila % 13,9koa da, Estatuko baxuenetakoa (Estatuko batez bestekoa: % 30,8)
- Gazteen formazio-maila % 80,4koa da (Estatuko batez bestekoa: % 61,3), Lisboako estrategian jasotako helburutik gertu: derrigorrezko ondorengo hezkuntza mailara iritsiko den ikasleen portzentajea % 85koa.

Alabaina, formazioa eta hezkuntza-kapitalaren ikuspegitik, nabaria da baita bi muturretan polarizatzeko joera: oso kualifikazio handiko sektorea, eta beste bat formazio txikikoa (7. grafikoa). Gainera, azken urteetan behera egin du formazio-mailak, "lan egitea nahiago dutelako".

Egun bizi dugun krisialdi egoeran, eta horri lotutako lan-merkatuko arazoak bitarte (lana aurkitzeko zailtasunak, edo lana galtzea), gazte askok formazioari eutsiko diotela suma dezakegu, laguntza sozialek eta etxekoenak ahalbidetzen dieten bitartean.




Iturria: Udal errolda, 2008ko urtarrilaren 1a. Vitoria-Gasteizko Udala.

## Euskararen ezagutza eta erabilera.

Euskararen ezagutza eta erabileraren zenbatekoari dagokionez, Gasteizko gero eta gazte gehiagok dauka bere burua euskalduntzat.

Adin-taldean arabera, 25 eta 29 urte bitartekoan artean, 10etik 4 euskaraz zein gazteleraz aritzeko gauza dira, baina 15 eta 19 urte bitartekoan artean 10etik 6k dauka bere burua elebiduntzat (8. grafikoa).



Iturria: Udal errolda, 2008ko urtarrilaren 1a. Vitoria-Gasteizko Udala.


**Gazteen lan egoera: jarduera-, okupazio- eta langabezia-tasak**

25 urtetik beherako arabarren jarduera-tasa EAEko baxuena da (% 33 Arabakoa, % 35,6 EAEkoa), bai eta Europako baxuenetakoa ere.

Jarduera-tasa egoera sozio-ekonomikoaren arabera aldatzen dela egia bada ere, gazteen arteko tasa baxua hobetu azaldu daiteke kultur aldaketa jakin baten bitartez, hezkuntza- eta prestakuntza-aldien luzapenaren bitartez, hain zuzen.

Azken 20 urtetako bilakaera aztertuz gero (9. grafikoa), jarduera-tasak behera egin duela ikusten da, baina eutsi egin izan diola kisialdi-egoerako uneetan, hala nola laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, eta, aldiz, azken bost urteotan izan duela beheraldi nabarmenena.


2007an, 25 urtetik beherakoen langabezia-tasa % 14,7koa zen Europako Batasuneko herrialdeetan (EB15), % 18,2koa Estatuan, % 7,6koa EAEn eta % 5,42koa Araban. Hor ikusten da langabezia nahikoa eskasa dela Arabako gazteen artean, nahiz eta ez den komeni jarduera-tasa baita txikiaren eragina ahaztea.



Gazteen –eta bereziki gazteenen– lan baldintzetan eragina duen beste alderdi bat azken urteetako beherakada demografiko nabaria da. Izan ere, lan egiteko adinekoen artean gutxi dira 16 eta 24 urte bitartekoak.


25 urtetik beherakoen jarduera-tasa oso txikia da, baina hurrengo adin-taldean (25 eta 34 urte bitartekoena) zuzendu egiten da tasa hori, sarritan formazio-aldiaren amaierarekin bat.

16 eta 24 urte bitarteko mutil eta nesken artean ez da apenas alderik jarduera-tasari dagokionez, baina 25 eta 34 urte-bitartean bai: 9 puntu txikiagoa da emakumezkoena. Alde hori lan-merkatuan sartzeko unean sortzen da hain zuzen (10. grafikoa), gizonetzko eta emakumeen lan-baldintza desberdin eta desorekatuak birsortzen diren eta jasan beharreko garaian bertan.



Iturria: Biztanleria jardueraren arabera, BJA (EUSTAT). 2007ko 2. hiruhilekoa

11. grafikoa Arabako lan eskatzaileen berri ematen du, 2007ko abenduaren 31n. 25 urtetik beherakoen multzoan neska eta mutilen artean alderik ez dagoen arren, adinean gora egin ahala gehiago dira emakume lan eskatzaileak. Bi arrazoik azaltzen dute hori: langabezia handiagoa da emakumeengan, eta lan baldintzek bizitu egiten die lanez aldatzeko goa.




25 urtetik beherakoen datuak 2008 eta 2009ko urtarrilekoekin alderatuz gero, erraz antzemango dugu egoera zenbateraino ari den gaiztotzen:

- 2008ko urtarrila: 25 urtetik beherako gizonezko eskatzaileak: 385
- 2009ko urtarrila: 25 urtetik beherako gizonezko eskatzaileak: 821
- 2008ko urtarrila: 25 urtetik beherako emakume eskatzaileak: 354
- 2009ko urtarrila: 25 urtetik beherako emakume eskatzaileak: 503<sup>1</sup>

Lan baldintzei dagokienez, langile gazteek bizi dituzten egoerak nekez jasotzen dira estatistiketan; izan ere, enplegu-erregistroek ez ohi dute kontratuen informaltasuna eta azpi-enpleguaren berri jasotzen.

Gazteek lan-merkatuan aurrean duten egoera eskasak azaltzen ditu kontratu eta enpleguen informaltasuna; gainera, ikasketak lanarekin, eta prestakuntza arautua lanbiderakoarekin uztartu beharrak areagotu egiten dituzte lan-ezegonkortasuna eta -aldikotasuna.

Kontratuen aldikotasuna lan-merkatuaren ezaugarri bihurtu da laurogeiko hamarkadako azken urteetatik hona, eta batez ere gazteenei eragiten diete. 12. grafikoan INEMek Gasteizen 2008ko bigarren hiruhilekoan erregistratutako kontratu mugagabe eta aldi baterakoak portzentajeak erakusten dira; bistan da aldi baterako kontratuak nagusitzen direla.



Iturria: Enplegu Institutu Nazionala, EIN (INEM)

Datu hauetan gazteek lan-merkatuan bizi dituzten egoeraren ezaugarri nagusi eta orokorrak islatzen dira, baina ez dira nahikoak pertsona gazteenen benetako lan-baldintzak azaltzeko.

Are gehiago, egun bizi dugun krisialdi egoera kontuan hartuz gero: enpleguari eragiten dio –eta eragingo oraindik ere–, eta, batez ere, enplegu babesgabetuenari, hain zuzen ere gazteenenari.

<sup>1</sup> Iturria: INEM, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa

Garai nahasi eta aztoratuok gazteen lan-errealitatea albait hoberen eta gertuen jakin beharra dakarkigute, ahalik eta xehetasun gehienez, ahalik eta gaurkotasun handienaz.

Gazteen oharrenari buruzko ikerlanean, bi datuk harritu gaituzte txarrerako:


- Inkesta egin duten gazteen % 3k kontratu gabe egiten du lan.
- Ehuneko handi batek ez du ez ikasten ez lan egiten.

### **Etxebizitza lortzeko arazoak. Gazteen emantzipazioa gurasoen etxetik.**

Enpleguarekin batera, etxebizitza da gazteen beste kezka-iturri nagusienetakoa, batez ere etxea eskuratzeko zailtasunengatik.


2007ko Etxebizitzen Beharra eta Eskariari buruzko inkestaren (EBEI) arabera, etxe bila dabiltzan pertsonen gehiengo zabalak 35 urte baino gutxiago du, % 82,1ek. Hau da, banaka edo bikoteka etxea eskuratu nahi duten 4 pertsonatik 3 baino gehiago gazteak dira.

18 eta 24 urte bitarteko gazteen artean (13. grafikoa) gehiago dira etxebizitza bikoteka eskatzen dutenak, bakarka eskatzen dutenak baino. 25 eta 34 urte bitartekoen artean, aldiz, kontrako joera nagusitzen da, nahiz eta alde txikiagorekin.



Iturria: EAeko Etxebizitzen Beharra eta Eskariari buruzko inkesta (2007)


Eusko Jaurlaritzaren inkesta berberaren arabera, 3tik 2 gaztek jabetzako etxebizitza eskatzen dute, eta 3tik 1ek alokairuan, edo bata zein bestea (14. grafikoa). Azken urteetako joeren artean alokairuko etxebizitzaren bilaketa, eta banaka edo bikoteka etxea eskuratzeari aparteko aukerak aintzat hartzea aipatu behar dira. Honakoak dira etxebizitza-beharraren atzean dauden arrazoi nagusiak: lehen lekuan gurasoen etxetik irteteko gogoia (jasotako erantzunen % 76), bikotearekin bizitzeko gogoia (% 19) eta, askoz apalago, ezkontzeko gogoia (% 4).



Iturria: EAEko Etxebizitzaren Beharra eta Eskariari buruzko inkesta (2007)

### Emantzipatzeko Oinarrizko Errenta. Buruan gaude, eskatzaile- zein hartzaile-kopuruan.

Datuok alokairuaren aldeko jarreraren gorakada erakusten dute, bai, baina horrekin batera alokairua ekonomikoki erakargarriago bihurtzeko neurrien beharra baieztatzen dute. Ez da ahaztu behar Gasteizen alokairuen prezioen batez bestekoa 900 eurokoa dela. Horri aurre egin asmoz sortu da Emantzipatzeko Oinarrizko Errenta, 22 eta 30 urte bitarteko gazteentzat Estatuak bideratu duen laguntza. Eskatzaileek hainbat baldintza bete behar dituzte, besteak beste: eskariaren aurreko sei hilabetetan lanean aritu izatea, urteko 22.000 euro gordin baino gutxiago irabaztea, eta alokairuan egotea edo egion nahi izatea Laguntza 210 eurokoa da hileko, eta 4 urtetan har daiteke gehienez.



### EMANTZIPATZEKO OINARRIZKO ERRENTA EAE n

EOEren eskatzaileak Euskadin: 6.242 gazte

EOEren jasotzaileak Euskadin: 3.306 gazte

Iturria: Etxebizitza Ministerioa. Espainiako Gobernu



Gasteizen 476 gaztek jasotzen dute gaur egun EOE; 286 neskek eta 190 gizonezkoak. Emakume baina gizonezko gehiagok eskatzen dute laguntza hori, % 60 / % 40 proportzioan. Gainera, neskek argiago adierazten dute emantzipatzeko nahia, eta gizonezkoek baino lehenago egiten dute (15. grafikoa).

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza saileko prentsa bulegoaren datuen arabera, 2008ko urtarrilaren 1etik azaroaren 10era bitarteko epean, hauxe da Arabako egoera Emantzipatzeko Oinarrizko Errentari dagokionean:

Izapidetutako eskaerak, guztira: 1.137

Ezeztatutako eskaerak, guztira: 243

Eskaerak ez onartzeko arrazoi nagusienak:

1. Eskatzaileak ez du egiaztatu gutxienez 6 hilabeteko lan-bizitza, edo denbora tarte horretan diru-sarrerarik izateko aurreikuspenik.
2. Eskatzaileen ohiko diru-sarrerak gainditu egiten dute 22.000 euroko muga.
3. Eskatzaileak ez dauka espainiar nazionalitatea, edo Europar Batasuneko zein Europako Esparru Ekonomikoko kide den estaturen batekoa; edo, Batasunaz kanpoko atzerritarra bada, ez dauka Espainian legezko bizileku iraunkorra.

Batez ere arrazoi ekonomikoek eta nazionalitate edo egoitza-baimena ez izateak oztokatzen die gazteei laguntza horiek eskuratu ahal izatea; benetan paradoxikoa da, izan ere arrazoi horiek galarazten dizkiete gazteei etxebizitza eskuratzea.

## **AISIALDI EREDUAK, AISIALDIAREN ERABILERA**

### **“Kulturaren aurreko jarreran eragiten duen faktore nagusia adina da”**

Gazteenek gaitzespen-jarrera erakusten diote hasiera batean kulturari, ezaxola eta pasibo agertzen dira beraren aurrean, baina adinarekin batera, jarrera horiek aldatu egiten dira onarpenera eta jarrera proaktibo batera.

Hasiera batean asperdura eta derrigorrekin lotzen dute kultura.

Zenbait kultur jarduera soslai jakin batzuekin identifikatzeak (ekimen elitista, gutxiengo batentzakoak) kulturaren irudi negatibo hori indartzen du.

Argi eta garbi, ez daukate egungo kultur eskaintzaren berri.

Bestelako publikoari zuzendutako kultur eskaintza bailitzan hautematen dute, haur eta helduei, alegia. Ez, beraz, gazteei.

16. grafikoa:

**Zenbat ordu libre duzu egunean?**  
(Sexuaren eta adinaren arabera)

		ASTELEHENE TIK OSTEGUNER A	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA	ASTEA, GUZTIRA
Gizonezkoa	15-18 urte bitarte	6,00	5,54	9,46	9,48	48,48
	19-25 urte bitarte	6,03	5,37	9,28	9,73	48,50
	26-30 urte bitarte	5,27	4,16	8,63	9,82	43,69
<b>Gizonezkoa</b>		<b>5,70</b>	<b>4,89</b>	<b>9,03</b>	<b>9,73</b>	<b>46,45</b>
Emakumea	15-18 urte bitarte	5,10	5,07	9,02	8,64	43,12
	19-25 urte bitarte	4,43	4,29	8,02	8,90	38,91
	26-30 urte bitarte	3,97	3,90	7,23	7,84	34,85
<b>Emakumea</b>		<b>4,35</b>	<b>4,26</b>	<b>7,86</b>	<b>8,42</b>	<b>37,92</b>
<b>GUZTIRA</b>		<b>5,04</b>	<b>4,58</b>	<b>8,46</b>	<b>9,09</b>	<b>42,29</b>

		ASTELEHENE TIK OSTEGUNER A	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA	ASTEA, GUZTIRA
Emantzipatu gabea		5,29	4,87	8,86	9,37	44,26
Emantzipatua		4,41	3,84	7,47	8,38	37,33
<b>GUZTIRA</b>		<b>5,04</b>	<b>4,58</b>	<b>8,46</b>	<b>9,09</b>	<b>42,29</b>

Oharra: aisialdiaz (ordu libreak) ulertzen da lanean, ikasketetan eta etxeko lanetan eman ez den denbora guztia

Iturria: Estudio diagnóstico de necesidades culturales de la población joven en Vitoria-Gasteiz. Append (2008)

### **Gazteen aisialdia praktikan.**

Denboraren erabilerari dagokionez, Gasteizko 15 eta 30 urte bitarteko gazteek etxeko aisialdiarekin eta ikuskizunekin zerikusia duten hainbat kultur jarduerari astean zehar zenbateko maiztasuna eskaintzen dioten jakin nahi dugu. 17. grafikoan ikusten da maiztasun handiena etxeko aisialdian metatzen dela, ikuskizunak oso atzean geratzen direla.

Beraz, bada lehen ondorio bat: Gasteizko gazteen artean etxeko aisialdia nagusitzen da. Bi multzo handi horien artean beste jarduera hauek daude: kirola praktikatzea, tabernaz taberna ibiltzea, gimnasia joatea, argazkigintza....


Zehatzago, Gasteizko gazteek telebista eta irratitari (18 bider baino gehiago hileko), eta Interneti (14 bider baino gehiago hileko) eskaintzen diete denbora gehien. Maiztasunaren arabera hurrenkeran, hurrengo multzoan (hilean 8 eta 11 bider tartean) daude honako jarduerak: liburu eta aldizkariak irakurtzea, Interneten erabilera kulturala, eta paseatzea. Hileko 4 aldiz baino gehiagoko maiztasunarekin agertzen dira zerrendan kirola aire zabalean (gizarte etxeetan egindako kirolaren maiztasuna bikoiztu egiten du ia-ia), ezer ez egitea, eta taberna eta diskoteketara joatea. Deigarria egin zaigu bi jarduera horren desberdin (kirola egitea batetik, ezer ez egitea bestetik) multzo berean egotea.

Hurrengo taldean (ikuskizunenaren aurretik), hileko 2 eta 3 bider baino gehiagotan jorrotutako jarduerak datoz: bideokontsolarekin jolas egitea, gimnasia joatea, argazkigintza aritzea. Ikuskizunen multzoan, hiru motatakora joaten ohi dira: kirol ikuskizunetara, liburutegietara eta zinemara. Maiztasuna hileko 1,5 eta 2 bider ingurukoa da kasu guztietarako.

Azkenik, bestelako ikuskizun eta kultur jardueretara joateko jarduerak daude (museoak, antzerkia, balleta, musika klasikoko kontzertuak...), hileko maiztasuna eskasa da guztietan.

Oro har, esan daiteke Gasteizko gazteak aisialdirako jarduera pertsonal, etxeko eta pasiboaren alde jotzen dutela, non teknologia mediatiko-birtualek garrantzia handien duten, paseatzearekin eta irakurketarekin batera; maila apalagoan agertzen dira etxetik kanpoko aukerak, bereziki kirola kanpoan eta taberna eta diskoteketara joatea.

Gasteizko gazteak gutxi jotzen dute ikuskizunen kultur eskaintzara. Erakargarrien dituzten ekintza kolektiboak kirola eta zinema dira.



Iturria: Estudio diagnóstico de necesidades culturales de la población joven en Vitoria-Gasteiz. Append (2008)


### Kultur ohiturak eta asteko erritmoa.

Bereiztu egin daitezke asteburuan eta astean zehar egiten dituzten jarduerak (18. grafikoa), nahiz eta ez jarduera mota guztietan; izan ere, kirolak eta paseatzea, esaterako, eguneroko praktikatzan dira.

Ikuskizunetara joatea ia-ia erabat asteburuko jarduera da, baina beste batzuk, hala nola irakurtzea, eta kultur jarduera jakin batzuk (dantza, margotzea, musika jotzea) maiztasun handiagoz praktikatzan dituzte, eta –gainera– ez derrigorrez asteburuan.

Asteburuarekin lotuta datozen jarduerak etxetik atera beharra eskatzen dute: diskoteka eta jolas-aretoetara joatea, aisialdi gisa erosketan aritzea, eta kirol jardueretara joatea. Aldiz, etxeko aisialdiarekin lotutakoek (telebista ikusi, ordenagailuarekin aritu lanez aparteko erabilera, Interneten nabigatu, bideojokoak) astean zehar praktikatzan dira.

Gizartekoitasunari dagokionez, tabernaz taberna ibiltzea nagusiki asteburuetako jarduera da; hiru bider urriagoa da egunero edo ia egunero ibiltzen direla diotenen kopurua. Lagunekin egotea eta telefonoz edo Internet bidez hitz egitea ia eguneroko jarduera da.



Iturria: Estudio de Modos de Vida de la Población de Vitoria-Gasteiz. (2006)

Kontuan hartzeko aldagai garrantzitsu bat delako jarduerari eskaintzen zaion denbora da; izan ere, batzuei ez zaie apenas denborarik ematen, eta beste batzuei asko. Denbora dezente eskaintzen dizkiete gazteek telebista, musika, irratia, irakurketa, teknologia berriak eta gaueko aisialdiari. Aldiz, deigarria da jarduera erlijioso, politiko eta bolondres ekimenetan parte hartzen duen gazterik apenas aurkitzea.

Lehen hausnarketa bat sortzen zaigu gazteek duten kulturaren kontzeptuaren gainean. Gorago esan dugunaren haritik, lotura zuzena egiten dute kultura eta asperduraren artean, kultura goitik behera ezarritako zerbait bailitzan ulertzen dute, kultura aisialdi-alternatiba negatibotzat ikustarazten duten faktoreekin.

Gazteek kulturagan duten interesari buruzko lehen ondorioa, beraz, interes edo motibazioa eza da, hain zuzen ere. Horren isla da proposatutako jarduerari eman dizkieten puntuazio pobreak. Alabaina, sailkapenik eman beharko balitz, kontuan hartu beharko lirateke hainbat aldagai, hala nola, astearen zein unetan gauden, adina, jarrera, etab.

Astearen uneak gazteen aisialdi eredia definitzen du; hartara, astegunetan etxean bakarka egiteko jarduerak nagusitzen dira, eguneroko jarduerak, eta asteburuan harremanetan jartzea eskatzen dutenak, batez ere lagunekin.

Bestalde, adinak modu erabakigarrian baldintzatzen du aisialdiko jardueren hautaketa, batez ere asteburuan.

Adiskideak dira gazteen aisialdiaren ernamuina, batez ere 15 eta 17 urte bitartean. Adiskideek oso paper garrantzitsua jokatzen dute, eta ez soilik jardueretako lagun gisa, baita jarduera horiek hautatzerakoan ere.

Adiskideen garrantziak iraun egiten du denboran zehar, baina pisua galtzen du adinean gora joan ahala, bai zertan aritu hautatzeko prozesuan, baita jarduera hori gauzatzerakoan lagun gisa ere. Gero eta gehiago, informazioa Interneten eta beste bitarteko batzuetan eskuratzea jotzen dute, eta jarduera "lasaiagoak" hautatzea.

"Parranda" da adiskideekin batera egiten den jarduera nabarmenena; horixe da, hain zuzen ere, aisialdiko jarduera nagusia. Beraz, lotura zuzen eta berehalakoa egiten dute AISIALDI eta LAGUNEKIN ATERATZEA kontzeptuen artean. Harreman hori iraunkorra da denboran zehar, nahiz eta adiskideak bezala, garrantzia galtzen duen adinean aurrera egin ahala, beste jarduera kulturalago batzuen alde.

Nolabaiteko bilakaera sumatzen da gazteen lehentasun eta beharretan. Urteekin batera, “kultura ofizialaren” aurrean gazteek erakusten duten jarrera ezaxola edo negatiboak bilakaera bizi izaten du, eta jarduera kulturalagoak egiteko interes eta behar handiagoa pizten zaie pixkanaka.

Beraz, jarrera-profilen aldaketak lotura estua dauka adinarekin; bilakaera logiko bat gertatzen da profilen artean, gazteenek kultura gaitzestetik, zaharrenek interesa erakusteraino. Emakumeengan ere bilakaera bada, nahiz eta ez beti gizonezkoengan gertatzen denaren parekoa, ez baitira lehen urratsetik (kultur jardueren gaitzespena) abiatzen; gainera, kultur jardueretik interesa gizonezkoengan baino arinago garatzen da.

Gazteen % 75a Gasteiztik ateratzen da kultur jardueretan parte hartzeko. Kontzertuak eta museoak dira lehen hautetsitako aukerak, baina ondo desberdinak dira bata eta bestea hautatzeko motibazioak.

Kontzertuetara kanpora joaten dira Gasteizko musika-eskaintzak ez dituztelako erabat asetzen; aldiz, museoetara joatea ez da bidaiatzeko arrazoi nagusia, baizik, alderantziz, bidaiaren beraren ondorio.

Faktore jakin batzuek zuzen-zuzen eragiten dute aisialdiko jarduerak hautatzeko unean, esaterako: adina, aisialdi-ekimenekiko jarduera pasiboa, eta eguneroko bizitzaren aurreko monotonia-sentimendua.

Gazteen artean adiskide-taldea da erreferentzia nagusiena, jarduerak hautatzerakoan gehien eragiten duena. Adiskide-taldearen garrantzia urritu egiten da adinean gora egin ahala, eta haren lekua hartzen dute Internetek eta prentsak.

Gazte askok ez du Gasteizko kultur eskaintzatik ekitaldi bakar bat ere azpimarratzen; aipatzen dutenek Jazzaldia goraiatzen dute.

Gorago definitu ditugun jarrera-taldeek ere ikuspegi propio eta berezia dute jarduera esanguratsuen gainean... edo, hobeto esanda, horien gabeziaren gainean. Kulturalki aktiboen direnen artean, % 27,1era jaisten da ekimenik batere aipatzen ez direnen multzoa; kulturaren aurkakoen artean, aldiz, % 53k.

Jarreraren araberako azterketak erakusten du kulturalki aktiboenak ekimen gehiagotara joaten direla.


Kultur eskaintzari buruz gazteek egiten duten azken balorazioa positiboa da; neurri berean baloratzen dituzte kalitatea, kantitatea eta aniztasuna.

19. grafikoa:

### JARRERAREN ARABERAKO PROFILAK

Kulturaren aldeko jarrera	Kulturarekiko ezaxola	Kulturaren aurkako jarrera
Kulturaren aldeko jarrera dute. Egungo kultur eskaintzaren nahikoa informazioa badute uste dute, berarekin identifikatuta sentitzen dira, eta bere egiten dute	Talde honek ez du jarrera garbi definiturik kulturaren aurrean; hala ere, ez du egungo kultur eskaintzari buruz nahikoa informaziorik, edo ez da berarekin identifikatzen	Kulturaren aurkako jarrera dute. Ez datoz bat egungo kultur eskaintzarekin, eta ez dute ezagutzen. Kulturaletan baino, nahiago dute bestelako jardueretan aritzea
Emakumeak	Gizon eta emakumeak	Gizonezkoak
26-30 urte bitartekoak	19-25 urte bitartekoak	15-18 urte bitartekoak
Emantzipatuak		Emantzipatu gabeak

20. grafikoa: 15 eta 34 urte bitarteko arabarrek Interneten egindako erosketak. (%) (2007)



### Kirol ohiturak.

Adinean gora egin ahala, kirol-jarduerak behera egiten du gazteen artean (21. grafikoa). Hartara, 14 urtetik beherakoen arteko % 82k egiten du kirol- jardueraren bat. Egoera hori ikastetxeek sustatzen dituzten kirol jarduerekin harremanetan egon daiteke; izan ere, nahiz eta 15 eta 24 urte bitarteko gazte askok (% 66,8) aisialdia kirolaren bidez betetzen badute ere, ehuneko hori urritu egiten da adinean gora joan ahala: % 55,4 bihurtu da 25 eta 44 urtekoen tartean, % 41,5 45 eta 64 adin-tartean, % 35,9 65 eta 75 urte bitartean, eta % 9,6raino jaisten da 75 urtetik gorakoan artean.

	Adin-tartea	EAE	Vitoria-Gasteiz
<b>Gizonezkoak</b>	<b>16-24</b>	63,1	70,4
	<b>25-44</b>	50,1	63,7
	<b>45-64</b>	51,5	62,7
	<b>65-75</b>	53,1	72,6
	<b>&gt;75</b>	41,4	46,7
	<b>Gizonezkoak</b>		52,3
<b>Emakumeak</b>	<b>16-24</b>	<b>46,0</b>	<b>46,3</b>
	<b>25-44</b>	45,7	55,8
	<b>45-64</b>	49,5	61,9
	<b>65-75</b>	44,8	66,7
	<b>&gt;75</b>	27,4	38,6
	<b>Emakumeak</b>		45,1

Iturria: Vitoria-Gasteiz hiriko gazteen kirol ohiturei buruzko azterlana (2007)

Jarduera fisikoari dagokionez, Gasteizko errealitatea EAEkoa baino hobea da, 16 eta 24 urteko nesken tartean izan ezik, hor parekatuta baikaude.

Kirol jarduerako neska eta mutilen arteko aldea adin-tarte horretan zabaldu egiten da adinean gora joan ahala; hartara, nerabezaroaren hasieran mutilen jarduera-tasa neskena baino 16,4 puntu altuagoa da, baina Batxilergoko lehen ikasturtean aldea 30,6 puntura iristen da. Gorputz Hezkuntzako eskolak alde batera, adin-tarte horretan sedentarismo-tasa % 18,3koa da guztira, baina % 26,2koa nesken artean.

Jarduera-maila, Gorputz Hezkuntzako eskoletatik at	Sexua		Guztira
	Emakumea	Gizonezkoa	
Jarduera oso eskasa	% 10,1	% 4,6	% 7,5
Jarduera neurritzko edo eskasa	% 16,1	% 5,1	% 10,8
Jarduera-maila ertaina	% 18,8	% 9,8	% 14,5
Oso jarduera handia	% 55,0	% 80,4	% 67,2
Guztira	% 100,0	% 100,0	% 100,0

Iturria: Vitoria-Gasteiz hiriko gazteen kirol ohiturei buruzko azterlana (2007)

Kirol-praktika uzteko arrazoi nagusiak honako hauek dira:

- Interes-galera
- Harremanak egiteko espazio sozialaren galera
- Jarraikotasuna emateko jarduera ez konpetitiboan gabezia
- Adiskide taldeak jarduera uztea

2007an eginiko Gazteen kirol ohiturei buruzko azterlaneko emaitzen arabera, gazteek jarduera fisikoaren eta kirolaren onurak onartzen dituzte, kirola eta jarduera fisikoan aritzeko eta horren bitartez ondo pasatzeko gogoaz azaltzen dute, baina eragozpenak aurkitzen dituzte horretarako.

Kirola egitea galarazten duen arrazoirik nagusia beste jarduera jakin baten aldeko hautua da, hain zuzen ere lagunekin egotearen aldekoa. Oztopo hori gaindiezin bihurtzen da baldin eta jarduera fisikoan aritzeak lagunekin egiteko aukera galarazten badu.

Hori dela eta, aintzat hartu beharko lirateke gazteei kirol jarduerarekin jarraitzea ahalbidetu lizkieken faktore jakin batzuk, batez ere emakume gazteengan, esaterako: kirola jarduera "erraz eramateko moduko" eta adiskide-taldekoekin gauzagarri bihurtzea, eta bereziki gazteentzat diseinatutako jarduerak eskaintzea.

## **GAZTEEN GIZARTEKOITASUNA: ESPARRU ZAHAR ETA BERRIAK**

### **Dimentsio afektibo eta harremanena.**

Gazteek denbora libre gehiago dute orain lehen baino; gehiago ateratzen dira kalera, batez ere asteburuetan. Alabaina, irteeren maiztasuna urritu egiten da adinarekin batera.

22. grafikoan gazteak gauzez zenbat ateratzen diren ikus daiteke. Adinean gora egin ahala gau-irteerak urritu egiten badira ere, azpimarratzekoa da gauzez ateratzea dela gazteen jarduera nagusia.




## Gaueko aisialdia.

Gazteak, gauez, batez beste 10ak eta 11ak artean ateratzen dira, eta goizeko 4etatik 7etara bitartean etxeratu.

Idea hauek lotzen dituzte Gauarekin: orduantxe izaten dela giro gehien, gauez ateratzen direla adiskideak, gauez ateratzea zerbait desberdina dela, errutinaz apartekoa, libre sentiarazten dituztela, eta gaua abentura dela.

Gazteen parekoekiko gizartekoitasunaren zati handi bat gauez garatzen da. Taberna edo diskoteka giroan ateratzeak esan nahi du ez soilik edatea, baizik eta parekoekin egitea, helduen begiradatik (kontroletik) aske, debekuaren eta arriskuaren ideiekin lotzen diren denbora- eta espazio-testuinguruan, bai eta trasnsgresio, abentura eta zehaztugabetasunarenekin. Hartara, bada, asteburuetakoa gaua derrigorrik gabeko denbora- eta espazio-gune anbiguo eta limurtzaile gisa bizi dute, astegunetako errutinetatik berezia; gaua, horrela ulertuta, helduen irizpide eta ikuspegietatik bereziko lituzkeen gazteen identitate-ikur bihurtuko litzateke. Gauak badu gazteentzat transgresiotik eta autonomiatik zerbait, baita gaua bera bereganatzeko borroka lehiakorretik ere.



Iturria: Gazteen Joerak 2005


## Kontsumoa eta gizartekoitasuna.

Aisialdirako zentro berriak. Era askotako ekintzak egiteko aukera ematen duen gunea, adin berekoen zein desberdinekoen artean.

## ARAZO SOZIALAK GASTEIZKO GAZTEEN ARTEAN

### Gazteen autonomia mugatzen, oztopatzen edo galarazten duten faktore pertsonal eta sozialak

Gasteizko Udalaren gizarte zerbitzuetara hurbildu direnen arteko asko gazteak dira. 1.700 inguru 26 eta 30 urte bitartean daude; 1.500etik gora 15 eta 20 urte bitartean, eta 1.200 21 eta 25 urteko adin-tartean. 2008ko arretaren hartzaileak gehiago izan dira emakumeak gizonezkoak baino, gehiago atzeritarrak espainiar nazionalitatedunak baino (23. grafikoa).



Iturria: Vitoria-Gasteizko Udala (2008)


### Gizarte laguntza publikoaren eskaria. Profilak

Gizarte zerbitzuetara hurbildu direnek azaldutako zaitasunei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu batez ere integrazioaren esparrukoak direla, gizarte- eta lan-integrazioa alegia, 4tik 3kasutan (24. grafikoa). Horixe litzateke Gasteizko gizartean antzematen diren gizarteratze eremuko gabeziak murrizten saiatzeko heldu beharreko arazo nagusia.

Gasteiztarren artean bada kezka eta ezinegona sortu duen bigarren arazo-multzo bat, noraino, eta gizarte zerbitzuen laguntza eskatzera behartzeraino. Bigarren multzo horretan sartzen dira elkarbizitzako arazoak, gabezia pertsonalak, eskolaratzearen eremuko desorekak, auzi psiko-afektiboak, eta tratu txarrak eta babes gabeziako egoerak. Multzo horretako gabezia eta zailtasunen muina familia barruko harremanak omen dira, batzuetan baita eskola sistemarekiko harremana ere.

Nahiz eta gutxiagotan aipatzen den, merezi du aintzat hartzea hirugarren kezka-multzo bat ere, hain zuzen bizi-gabezia batzuekin lotutakoen arazoena: osasun-arazoak, bakartasun eta isolamendu egoerak, autonomia pertsonala garatzeko arazoak, arazoak etxebizitzarekin, edo ekonomikoak, eta informazio gabezia.

Arreta berezia egin behar litzaieke harreman afektiboa duten edo izan duten pertsonen arteko indarkeria-egoerei. Etxeko eta genero indarkeriari alegia. Azken hori bereziki kontuan hartzekoa da, pertsonen bizia hondatzeko eta familietako bizitza desegituratzeko duen indarra itzela baita.



Iturria: Vitoria-Gasteizko Udala (2008)


### **Laneratze, eskolaratze eta gizarteratzearekin, gabezia pertsonalekin, eta bizikidetzazailtasunekin zerikusia duten arazoak**

Hiru multzotan bana daitezke Gasteizko Udaleko gizarte zerbitzuek laguntza bila joan zaizkien pertsonengan identifikatu dituzten arazoak.

Lehen multzoan daude lan-merkatuan sartu ahal izateko kualifikazio eta formazio gabeziak, bai eta legalki egoera irregularrean egoteagatik "paperik" ez izatea, eta hizkuntzarekiko zailtasunak (25. grafikoa). Lehen multzo horretan pertsona nazional eta atzerritarrak daude, nahiz eta atzerritar gehiago. Gizarte eta lan integrazioaren inguruan batzen dira kezka guzti horiek.

Bigarren multzoan guraso bakarreko familiak daude (seme edo alaba duen aita edo ama), bai eta eskolarekiko jarrera ezkorra duten adingabeak. Multzo horretan bada elementu ardatz bat –nahiz eta ez bakarra–, arazo erantsi gehiago ere badituen familia desegituratuko kide izatea. Litekeena da zailtasun erantsi horiek (baliabide ekonomikoen gabezia, etab.) izatea egoera kezkagarriaren arrazoi nagusia, familia barruko harremanak baino gehiago.

Hirugarren multzoan indarkeria fisiko eta psikikoarekin zerikusia duten egoerak daude, nahasmendu afektibo edo bestelakoak, sarritan tratamendu global eta espezializatua eskatzen dutenak.



Iturria: Vitoria-Gasteizko Udala (2008)


## II. UDALAREN GAZTE PLANAREN LANKETA PROZESUA

### 1. I GAZTE PLANAREN EBALUAZIOA, ETA ERREALITATEAREN DIAGNOSTIKOA

Planifikazio prozesu ororen abiapuntua eragin nahi duen errealitate zehatza izan behar du, eta ez soilik ikuspegi tekniko batetik hartuta, baita ikuspegi zientifikotik eta pertsona hartzaileen iritzi eta balorazioetatik abiatuta. Asmo horrekin, diagnostiko lan bati ekin genion 2008ko azken hiruhilekoan, esparru eta ikuspegi desberdinetatik ekin ere:

- EHUko Soziologia 2 Saileko CEIC/IKIren laguntzarekin (Identitate Kolektiboen Ikertegia) 2008ko Gasteizko **gazteriari** eta etorkizuneko erronkei **buruzko azterlana** osatu dugu. Abenduaren 2an aurkeztu genituen gazteriari buruzko azterlan soziologikoaren emaitzak. Ekitaldian gazte, elkarteetako ordezkari, eta Udaleko teknikari eta politikari ugari bildu zen.
- **Aldebiko bilerak** egin ziren I Gazte Planean inplikaturako sail eta zerbitzuekin, plan hartako ekintzak baloratzeko, teknikarien ikuspegi desberdinetatik gazteriari buruzko analisiak biltzeko, eta gazteen kolektiboak Udalaren sektorekako arloetan planteatzen dituen erronken berri izateko.
- Urtarrietik aurrera, eta hiru aldetako lankidetzaren bidez (Invesco, EHU eta Gazteria Zerbitzua) **inkesta bat egin zitzaien gazteei**, 851 elkarrizketa pertsonaletan oinarrituta; horren asmoa gazteek I Gazte Planaren gaineko oharmena eta balorazioa jasotzea zen, bai eta II Planaren gainean zituzten aurreikuspenak ere.

Fase horretako lana hiru zirriborrotan bildu zen: gazte Planari buruzko Txosten-Ebaluazioa, I. eranskina (2006-2008ko ekintzen burutze-txostena), eta II. eranskina (Gazteriaren egoeraren azterketa). Zirriborro horiek Gazte Planaren jarraipena egiten den hiru mailetan aurkeztu ziren (elkarteak, politikariak, eta teknikariak), kontrastea



egin eta balizko ekarpenak erantsi ahal izateko.

Laburbilduz, ebaluazioan egindako lanak errealitatea ezagutzea eta Udalaren II. Gazte Planaren planifikazioaren baitan erabakiak hartzea ahalbidetu zигun.

Hauxe izan zen hiru Jarraipen batzordeekin jorratutako lehen proposamena; Plan berria aurrekoan atzemandako beharrei erantzungo zieten bost lerroren inguruan egituratzea; honakoak dira identifikatutako lerroak:

- 1. lerroa: Emantzipazioa eta autonomia
- 2. lerroa: Parte hartzea, sormena eta berrikuntza
- 3. lerroa: Bizitzarako hezkuntza
- 4. lerroa: Integrazioa eta gizartekoitasuna
- 5. lerroa: Gazteen egoera ikustaraztea eta zeharkakotasuna.

Lerro guztiak dira zeharkako, Udalaren hainbat sail eta zerbitzuri eragiten dieten neurrian. Baina, beste guztien gainetik, 5. lerroa; izan ere, bere bidez gazteriaren errealitatearen egoera eta plana burutzeari buruzko informazioa ikustaraztea nahi da, betiere udaleko ikuspegitik abiatuta.

## 2. ERRONKAK

Behin lerroak identifikatuta, hurrengo urratsa jorratu nahi genituen erronka edo jomuga jakin batzuk zehazten saiatzea izan zen. Asmo horrekin, elkarte, politikari, eta teknikariek –bakoitzak bere eremuan– aipatutako erronka guztiak jaso genituen.

Erronkak bildu ostean, berriz, beraien artean premiazkoak (1. mailakoak), garrantzitsuak (2. mailakoak) eta desiragarriak bereizteko ahalegina egin genuen. Beraz, eta hiru esparruetako eragile inplikatuak ekarpenak aintzat hartuta, Udalaren II. Gazte Planaren ernamuin izango diren erronkak hautatu genituen, honako hauek:

1. lerroa: EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA:

- 1.1. ERRONKA: **Lan-merkatuan sartzeko tresna eta baliabidez jantzitako gazteak.**  
1.2. ERRONKA: **Gazteen beharrezkoen eta aukeretara egokitutako etxebizitzak eskaintza.**

2. lerroa: PARTE HARTZEA, SORMENA ETA BERRIKUNTZA

- 2.1. ERRONKA: **Gazteen parte hartzea onartzeko eta sustatzeko prest dagoen hiria.**  
2.2. ERRONKA: **Gazteak, eragile aktibo eta sortzaile.**

3. lerroa: BIZITZARAKO HEZKUNTZA

- 3.1. ERRONKA: **Gazte kritiko, arduratsu, elkartasunezko eta baloreetan sentsibilizatuak.**

4. lerroa: INTEGRAZIOA ETA GIZARTEKOITASUNA

- 4.1. ERRONKA: **Gasteiz, egoera sozial okerre aurre egiten dien hiria.**  
4.2. ERRONKA: **Gasteiz, gazteentzako topagune eta elkarbizitzarako lekua.**  
4.3. ERRONKA: **Sormena, elkartzea eta aisialdia abiapuntu, hiri-kultura sortzen duten gazteak.**

## 5. Ierroa: GAZTEEN EGOERA IKUSTARAZTEA ETA ZEHARKAKOTASUNA.

5.1. ERRONKA: **Gasteiz, gazteak baloratu eta errespetatzen dituen hiria.**

5.2. ERRONKA: **Gasteiz, gazteak present eta protagonista dituen hiria.**

5.3. ERRONKA: **Gazteria zeharkako bihurtzera jotzen duen udal antolakuntza, gazteria bere zerbitzu eta sail guztien eta beste erakunde batzuen ekintzaren hartzaile gisa ulertzearen bidez.**

Erronka horiek jomuga jakin batzuetara bideratzen gaituzte, baina zehaztu egin behar da erronka horietako bakoitzean aurrera egiteko zenbateko guraria eta ahalmena dugun, betiere eskura ditugun baliabide eta aukerak, eta Udalaren eskumenen testuingurua kontuan hartuta. Hori dela eta, teknikariek eta elkarteetako ordezkariak osatutako zeharkako taldeak eratu genituen, eta erronka bakoitzari zegozkien helburu eta adierazleak osatzen elkarrekin lan egin zezaten eskatu. Guztira 70 bat pertsona inguru aritu da, Udalaren sailetako langileak eta gai jakin batzuetan adituak.

### 3. HELBURUAK

Behin erronkak adostu zirelarik, helburu eta adierazleak osatzeko metodologiara jo genuen; hartara, batetik zeharkako taldeetako partaideen lana erraztuko zen, eta bestetik hizkera eta metodo berbera erabiliko zen, nola helburuen osaeran, hala adierazleenean ere. Bileretako asmoa aurkeztutako helburu guztiak bildu, eta eduki-zuhaitz baten antolatu eta sailkatzea zen.

Lerro bakoitzeko bilera bat egin zen, eta horietan lerroetan zerikusia zuten sailetako teknikariak, lerro bakoitzeko alderdi jakin batzuekin zerikusia zuten elkarteetako ordezkariak, eta bakoitzeko funtsezko gaietako adituak bildu ziren. Erabilitako dinamikek erronka zehatz bakoitzari zegozkion helburu eta adierazleak berezi eta biltzen lagundu zuten.

Lerro bakoitzeko helburu eta adierazleak jasotzen zituen taulak helarazi genizkien politikarien eta elkarteetako kideen Jarraipen batzordeetara, horiek beren ekarpen eta aldaketak egin zituzten.

### 4. EKINTZAK

Hurrengo urratsean, aurretiaz adostutako helburuak lortze aldera abiaraziko genituen ekintza zehatzak definitzea izan zen. Prozesua inplikaturako eragile guztiei ireki genien, eta, behin ekintzok jasota, alde biko bilerak egin ziren sail eta erakunde autonomo guztietako buruekin, horietako bakoitzari ekiteko aukerak eta sail bakoitzari legokiokeen ardura aztertu asmoz, bai eta bakoitzaren denbora-banaketa, aurrekontua, jarraipena eta ebaluazioa.



Zirriborroa politikarien eta elkarteetako kideen batzordeetara bidali zen, horiek baliozta zezaten; betiere ekarpenak, ñabardurak eta beste egiteko aukera eman zitzairen.

## **5. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA**

Azaldu dugun lan guzti horrek eskatzen du: batetik esku hartzeari buruzko informazio, jarraipen eta ebaluazio tresnak; bestetik, errealitatea ezagutzen laguntzekoak ere.

Udalaren II. Gazte Planak bere baitan hartzen ditu jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresnak. Jarraipen- eta ebaluazio-lanetan planifikazio hau osatzen lagundu duten eragile guztiek eta Gasteizko gazteriaren Behatokiak hartuko dute parte. Horretarako, Gazte Planak (helburuak bitarte) eragin nahi duen errealitatearen eboluzioa islatuko duten adierazle-bateria erabiliko du.

## **UDALAREN II. GAZTE PLANA PRESTATZEKO PROZESUAN PARTE HARTU DUTEN PARTAIDEEN ZERRENDA**

### **GAZTE INTERESEKO ERAKUNDEAK**

AJEBASK

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

Gauekoak elkartearen Federazioa

Sexagerian

ADSIS Fundazioa

Gazteok XXI

ASAJER

Eginaren Eginez

Euskalherriko Eskautak

Gurutze Gorria Gazteria

Ola 19 ACULRA

Gazteria eta etxebizitza lan taldea

Gazte Sozialistak

EGI

Gazte Gasteiz

Elkarlanean

### **GAZTEAK, BERE IZENEAN**

### **UDAL SAIL ETA ZERBITZUAK**

Gazteria Zerbitzua

Berdintasunerako Zerbitzua

Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzua

Euskara Zerbitzua

Ekonomia Sustapen eta Estrategia Plangintzaren Saila

Ikerketa Bulegoa

Informazioaren Teknologien Saila

Kultura Saila

Montehermoso Kulturunea

Osasun eta Kontsumo Saila

Hezkuntza Saila

IGI (Ingurugiro Gaietarako Ikastegia)

Kirol Saila

Udaltzaingo Zerbitzua

Gizartegintza Saila

Hirigintza - Plangintza Saila

Prentsa Aholkulariak

**UDAL ENPRESAK**

ARICHSA (Hirigune Historikoa Era Integralean Biziberritzeko Agentzia)  
21 Zabalgunea

**BESTE ERAKUNDEAK**

KREA  
Berritzegune  
San Prudentzio Lan-fundazioa

**TALDE POLITIKOAK**

Euskadiko Alderdi Sozialista (PSE-EE)  
Alderdi Popularra (PP)  
Eusko Alderdi Jeltzalea (EAJ-PNV)  
Ezker Batua (EB)  
Eusko Alkartasuna (EA)

## 1. LERROA: EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA


Gazteen emantzipazioaz eta autonomiaren alorrean, honako elementuak bermatzea dugu azken erronka, betiere askatasun giro batean: herritartasun oso eta aktiboa, aukera berdintasuna, eta bizi-proiektu bat sortzeko aukerak.

Ildo horri lotuta, garrantzitsuenen jo ditugun bi erronkak gauzatzeko helburu eta ekintzak planteatuko ditugu. Hona erronka horiek:

1.- Bata, enpleguari, enplegu-baldintzei, enplegua lortzeari eta enplegurako formazioari dagokienez, **lan-merkatuan sartzeko tresna eta baliabidez jantzitako gazteria osatzea.**

2.- Gazteen emantzipaziorako etxebizitza eskuratzeko aukera bermatzea nahitaezko elementua den aldetik, **gazteen beharrian eta aukeretara egokitutako etxebizitza-eskaintza** osatzea.

Udalak eskumen mugatuak ditu bi esparru horietan, eta, jakina, bete nahi diren helburuak eta horiek eskuratzeko ekintzak eskumen horien menpekoak dira.

Enpleguak eta lan-munduan sartzeko bideak gazteen emantzipaziorako aukerak baldintzatzen ditu. Errealitatearen azterketatik ondorioztatzen da Gasteizko gazteek oztopo eta zailtasun ugari dituztela lana aurkitzeko, are gehiago kalitatezko lana; izan ere, 25 urtetik beherakoen arteko Arabako jarduera-tasa Europako baxuenetakoa da, eta enplegu-eskatzaileren multzoa handitzen ari da 2007tik hona. Krisialdi honetako datuen artean bereziki kezkarriak dira gazteei eragiten dietenak. 

Nekez izango dugu errealitatean egoki eragiteko aukerarik ez badugu gazteen enplegu-egoeraren berri zehatzik, ez baditugu bere eboluzioa eta joerak ezagutzen bizi dugun egoera zehatz honetan. Errealitatean eraginkortasunez eragin nahi badugu, errealitate hori ezagutu beharra dugu, bai eta Gasteizen enpleguarekin eta lan-merkatuarekin zerikusia duten eragileekin harremanetan jarri eta lankidetzan aritu.

Gazteen lan-merkatuaren (30 urte arteko pertsonena) ezaugarri nabarmenenetako bi behin-behinekotasuna eta soldata baxua dira, soldata ez nahikoa gutxieneko beharrak betetzeko (etxebizitza lortzea, independentzia ekonomikoa, norberaren txokoa, etxe autonomoa sortzea). Gorago aipatutako txostenak ederki erakusten du gizartean eta merkatuan “enplegu” izena “gazte” edo “lehen” adjektiboekin laguntzen denean (enplegu gaztea, lehen enplegua,...), soldata baxuagoak eta lan-baldintza “bereziki” aplikatzeko asmoa dagoela atzean.... hau da, eta eufemismorik gabe hitz egingo bagenu, lan-baldintza “merkeagoak” esan nahi duela.

Gaur egun dugun ongizate-sistemak ez die gazteei autonomia eta emantzipazioaren bidearen bila askorik laguntzen; *familistat*z definitzen den neurrian, babes soziala ez zaio pertsonari aplikatzen, baizik eta familia-unitateari.

*Horren ondorioz, baliabide sozialen banaketak desoreka-irudi dezentekoa ematen du. Helduek sektorekako politika finalisten bitartez prestazio horiek eskuratzen dituzten bitartean, gazteei ez zaie gazteriako sektore-politiken bitartez baliabide bakar bat ere iristen, ozta-ozta apurren bat baino ez.*

---

<sup>1</sup> Ikus : Informe del Observatorio de las Ocupaciones del Servicio Público de Empleo Estatal (SPEE) INFORME DEL MERCADO DE TRABAJO DE LOS JÓVENES ( ALAVA). 2009ko maiatza.

*Alabaina, egia da baita Estatuak banatzen dituen baliabideak familia unitateko helduei iristen zaizkien arren, gazteak izaten ohi direla laguntza horien azken hartzaileak. Baina ez dituzte zuzenean eskuratzen, gazteari gazte izate hutsetik darion eskubide baten ondorio gisa. Litekeena da baita Ongizate Estatuak helduengana bideratzen dituen diru-baliabideen zati handi bat gazteen eskuetan amaitzea (aisialdirako, etxebizitzarako...), baina banaketaren kudeaketa familia unitatearen eskuetatik pasatzen da; horrek esan nahi du heldu batek edo gehiagok jasoko dituztela laguntzak eta, ondorioz, beraiek kudeatuko dituztela.*

Enplegua lortzeko (batez ere kalitatezko enplegua) baldintzen artean prestakuntza profesionala dago. Horregatik, gure ahaleginik handienetakoa gazteen kualifikazioa sustatzea eta beraien artean lan-bizitzari buruzko ezagutzen kapitala hobetzea da.

Egoera horren aurrean, lehentasuna informazio eta formazioa zabaltzea da, enplegurako prestatzea, motibatu eta aholku ematea, lan-bizialdi osoko formazioaren beharraz bereganatzea... Laburbilduz, emantzipazio-prozesuan eta herritartasun osoa disfrutatzeko bidean lagunduko dien kalitatezko lana eskuratzeko funtsezko tresnak eskaini nahi diegu gazteei.

Gazteria bera anitza den aldetik, eskaintzak ere hala behar du izan; izan ere, gazte batzuek informazioa beharko dute, beste batzuek formazioa, halakoek aholku espezializatua, eta holakoek laguntza zehatza proiekturen bat abian jartzeko...

Hots, baliabideak jarri nahi ditugu gazteen eskura, emantzipazio-prozesuan lagunduko dien kalitatezko enplegua lortzen laguntzeko.

Emantzipazio-prozesuetan funtsezko beste elementu bat gurasoen etxetik atera eta nork berea eskuratzea da, bertan gazteek bizi-proiektu autonomo bat garatu ahal dezaten.


Premia nabarmenenetakoa den arren (ez alferrik, etxebizitza-eskatzaileen % 85 gazteak dira), emantzipatzeko adina Estatuko handienetakoa da; horra gure hiriak erantzun beharreko behar minenetako bat.

Etxebizitzaren eremuan Gazte Planak proposatzen dituen ekintzen abiapuntua Udalaren jardura gazteen benetako aukeretara egokitzeko ahaleginean oinarritzen da, bai eta beren egoera materialera eta bizi-proiektuetara.

Enpleguaren kasuan bezala, beste honetan ere eskaintza eta eskariaren, eta gazteen beharren ezagutza eguneratua izatea oso inportantea da, modu koordinatuan eta gazteen beraien ikuspegia integratuz aritzea bezainbeste.

## 1. Ierroa Emantzipazioa eta autonomia

### 1. ERRONKA Lan-merkatuan sartzeko tresna eta baliabidez jantzitako gazteak



## 1. lerroa Emantzipazioa eta autonomia

## 2. ERRONKA Gazteen barrizanei eta aukeretara egokitutako etxebizitza- eskaintza

Gazteek etxebizitza eskuratzeko dituzten behar, aukera eta adierazleen informazio eguneratua izatea: (kontsultak, etxebizitza-mota desberdinetan jasotako eskaria, errefusak...)

**GAZTEEK EGINIKO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN (ALOKAIRUKO ETA JABETZAKOAK) ESKARIARI, ETA ESKARIAREN BILAKAERARI BURUZKO TXOSTENA**

Udal baliabide material eta humanoak bidera ditzala gazteei alokairuzko etxebizitzak eskaintzeko

**Etxebizitza eta gaztediari buruzko LANTALDE EGONKORRA, udal sailak eta bestelako erakundeak elkarren artean harremanetan jarriko dituenak.**

**Lantaldeek proposatutako ekintzak**

Udalaren etxebizitzari buruzko politiketan gazteen kolektiboa aintzat hartu dadila, eta bere ahotsa entzun dadila

**JARRAIPEN BATZORDEA: UDAL INFORMAZIOA (2. lerroa)**

## 2. LERROA: PARTE HARTZEA, SORMENA ETA BERRIKUNTZA

Lerro honen baitan bi esparru handi biltzen dira, lehenetsitako bi **erronkekin** bat etorritz:

- **Gazteen parte hartzea onartzeko eta hartzeko prest dagoen hiri bat** eraikitzea, hau da, hiriak, bere ikuspegitik, lerroaren ardatz nagusiak (parte hartzea, sormena eta berrikuntza) sustatzeko xedeari erantzun asmoz.
- **Gazteak, eragile aktibo eta sortzaile**, gazteak eurak izan daitezten ardatz horietako subjektu aktibo.

Errealitatearen analisiak egiaztatzen du, batetik, ohiko bitartekoetan gutxi hartzen dutela parte gazteek. Bestetik, parte hartzeko molde berriak agertu direla, denbora eta espazioa parekoekin konpartitu behar diren (lonjak, leku autogestionatuak) eskutik, edo egitura egonkorrekin bat egiten ez duten proiektu, aldarrikapen edo/eta aldiko topaketekin lotuta. Eta, azkenik, baita Interneteko sare sozialen arrakasta.

Parte hartzea sustatzeko, nahitaez motibazioa eta formazioa joratu, eta bide errealek sortu behar dira (NAHI, JAKIN, AHAL), betiere adin txikienetik hasita. Beraz, hor ikusten da eragin beharreko alderdi garrantzitsuenetako bat Parte-hartzearen aldeko Hezkuntza dela. Hezkuntza mota horren helburua gazteak gizartean aktiboki inplikatzeko bidean jarriko dituzten ezagutza, gaitasun, balore eta motibazioez janztea izan behar luke. Parte hartzean hezteak hainbat gaitasunetan (hala nola komunikazio- eta antolaketa-gaitasunak, gaitasun kritikoa) eta balore jakin batzuetan (elkartasuna, konpromisoa, guztion onura) hezteka esan nahi du.

Bestalde, oso garrantzitsua da gazteen parte hartze erreal eta zehatza ikustaraztea, eta horretan alderdi positiboak mahai gainera ekartzea; hitz batean esateko, gure hiriko gazteak present eta protagonista bihurtzea.

Gazteek parte har dezaten, informazio esanguratsua izan behar dute eskura, hau da beren behar eta itxaropenetara egokitutako informazioa. Informazioa eskuratzeko eta besteei helarazteko darabilten bitarteko eta mekanismoak aldaketa prozesu etengabea daude; garrantzitsua da informazioaren teknologiak ezagutzea, eta gure mezuak gazteen kode eta lengoaietara egokitzen saiatzea.

Lerro honetako beste ezaugarri aipagarri batzuk sormena eta berrikuntza dira. Hementxe ikus daiteke gure abiapuntua:

*Herrialde jakin bateko barne produktu "ez gordina" (BPeG) bertako herritarren adimenean datza. Benetako meatokiak, aberastasuna barrutik aterea..... benetako lehengaia gure adimena da, norberaren kapital garrantzitsuena. Gure irudimenak, jakituriak eta ekintzek lagun diezaiotela eraikitze eta berreraikitze prozesuan dagoen gizarte ezin konplexuago honi, bertan **bizitzak poltsak** baino gehiago balio dezan, poltsa biziaren zerbitzuan egon dadin, eta ez alderantziz. Sormena guztion eskubide izan dadin, ez soilik aukeratu gutxi batzuenak.*  
(*"Ser creativos"* Marga Iñiguez. *Jornadas Juventud y Ciudad. Zaragoza, 2008*)

Hain zuzen ere, gazteena da arriskuaren eta esperimazioaren aurrean jarrera irekiena duen kolektiboa. Berrikuntza, sormena eta ekintzailtza gaitasunetan lan egitea etorkizuneko hirirako inbertitzearen pareko da. Udalaren II. Gazte Plana osatzeko prozesuan zehar, eta bereziki kulturaren eremuan, gazteekin sormenezko



proiektuak bultzatzearen alde lan egin beharra sumatu dugu, hiriak gazteak etorkizunaren sustatzaile gisa ikustarazi eta balora ditzan bizitzaren esparru guztietan.

Gazteak beren aisialdiaren protagonista eta eragile izango badira, alderdi jakin batzuetan gazteenTZAT lan egiteaz gain, gazteEKIN lan-dinamikak garatu beharko ditugu Udaleko zerbitzu eta sail guztiok. Gazteek orain arte inoiz baino denbora libre gehiago dute gaur egun, eta batez ere aukera-aniztasun handiagoa denbora hori "bete", "aktibatu" ahal izateko. Teknologia berriek aisialdira, kultur ohitura eta olgetara ekarri dituzten aldaketek elkarrekin pentsatzeko bidean jartzen gaituzte denbora (astegun eta asteburuak, goiz eta gaua...) eta espazio (jarduera eta praktika kolektibo eta norbanakoenen integrazioa) jakin batzuei buruz, batzuetan teknologiaren eragina jasotzen dituzten denbora eta espazio alegia.


Lehen erronkari erantzun asmoz, honako elementuak kontuan hartuko dituzten ekintzak planteatu dira: parte-hartzeko aukerak jorratzea, informazioa eta komunikazioa hobetzea, sormenezko interesgune eta espazioak, eta sormenarentzako aukerak bilatzea, eta gazteei buruzko estereotipoak gainditzea.

Bigarren erronkaren dagokionez, Gazte Planaren ekintzek gazteek hiriaren plan eta proiektuak ezagutu ditzaten, eta gazteen parte hartze zuzena areagotzea (gizarte eragile bihurtzeraino) dute xede: Parte-hartzeko heztera, eta udal programazioetako fase guztietan gazteen protagonismoa suspertzera bideratuta daude.

Helburu horiek lortzeko bidean emandako aurrerapausoak neurtzeko adierazleen bitartez ikusi nahi dugu: zenbateraino irekitzen dituen Udalak bere politiken diseinua gazteen parte hartzera, zenbateraino sormena eta sorkuntza jakin batzuek (lehen erronka begitan), eta zenbateraino gazteek erantzuten duten, eta herritar aktibo gisa agertzen diren espazio publikora.


## 2. Ierroa Parte hartzea, sormena eta berrikuntza

### 1. ERRONKA Gazteen parte hartzea onartzeko eta sustatzeko prest dagoen hiri bat



## 2. Ierroa Parte hartzea, sormena eta berrikuntza

### 2. ERRONKA Gazteak, eragile aktibo eta sortzaile



### 3. ARLOA: BIZITZARAKO HEZKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA

Erronka honetan biltzen dira lerroko kezka: **Gazte kritiko, arduratsu, elkartasunezko eta baloreetan sentsibilizatuak**. Udalaren II. Gazte Plana hirian aurretiaz dauden sektorekako beste plan batzuekin egituratzerakoan gorpuztuko da erronka, honako gaiekin uztartzen baita Gazte Plana: osasun eremuko hezkuntza eta sentsibilizazioa, osasuna modu arduratsuan bizitzea zenbait gaitan (sexualitatea, psikologia-osasuna, elikadura, drogamenpekotasuna,...) iraunkortasuna eta mugikortasun iraungarria, berdintasuna, eta gatazken konponbide baketsua.

Lehen ahalegina esparru horietako batzuetako irizpideak zeharka lantzekoa izan behar da; izan ere, gaur egun sail bakoitza bere kasa ari da, zeina gazteriar buruzko bere ikuskeraren arabera eta, ondorioz, estrategia desberdinduen arabera. Hona lantaldeen helburuak:

- hartzaile berberekin lan egiten duten sail eta zerbitzuen arteko ezagutza eta komunikazioa hobetzea,
- udal jarduera koherentziaz janztea,
- eta udal jardueraren baitan sinergiak piztea.

Lerro honek barne hartzen dituen ekintza guztien atzean baloreetako sentsibilizazioa dago (elkartasuna, erantzukizuna, iraunkortasuna, berdintasuna...), horixe baita "Bizitzarako hezkuntza" deitu dugunaren euskarria. Halaber, egoera gatazkatsuei aurre hartzeko eta kudeatzen jakiteko tresnak landuko dira, esaterako: bide hezkuntza, elkarbizitzarako hezkuntza, gatazken konponketa, etab.


Helburuak lortu asmoz, kontzeptuzko lau multzo handitan egituratu da lerroa:

**Informazioa**, gazteek hainbat eremutan dituzten alternatiba eta aukeren oinarritzko ezagutza gazteen eskura jartzea, ohitura osasuntsu eta osasungarriak sortu eta praktikan jarri aurretiko urrats gisa, informazio horrek prebentzio-izaera eta –gaitasuna baitu.

**Aholkularitza** eta laguntza arazo-egoera jakinen bat bizitzen ari diren pertsonentzat.

**Ohitura eta bizimoduak**. Gazteek balore jakin batzuk beren egunerokotasunean txerta ditzatela landu nahi dugu, esterako: berdintasuna, iraunkortasuna, osasuna, kirola, bide hezkuntza...

**Beste kontu batzuk**, aurreko guztia gauzatzen lagunduko digutenak: koordinazioa eta zeharkakotasuna (5. lerroarekin estu lotuta, han erronka horrek garrantzi handia baitauka).



**1. ERRONKA**  
Gazte kritiko,  
arduratsu,  
elkartasunezko  
eta baloreetan  
sentsibilizatuak

**3. lerroa Bizitzarako hezkuntza. Beste plan batzuk**

<b>KOORDINAZIOA EUSKARA PLANAREKIN</b>	
Gazteek euskara gizarte kohesiorako hizkuntza gisa bereganatzea, eta berarekin konprometitu daitezzen lortzea	
Funtzio sinbolikoaz gain, gazteek euskara komunikazio eta transmisio-funtziotarako ere erabiltzea, kultur eta hizkuntz aniztasunaren irizpideetatik lan eginez.	
<b>KOORDINAZIOA MUGIKORTASUN IRAUNGARRIRAKO PLANAREKIN / BIZIKLETAREN PLAN</b>	
14 eta 30 urte bitarteko gazteen artean ohitura iraungarriak sustatzea, hala nola birziklatzea, garraio alternatiboa, etab.	
Oinez ibiltzeaz gain, bizikletaren eta garraio publikoaren erabilera sustatzea ohiko garraiobide gisa gazteen artean	
14 eta 30 urte bitarteko gazteek iraungarritasunean oinarritutako kontsumo arduratsuaz jokatzea bideratzea	
<b>KOORDINAZIOA BERTINTASUN PLANAREKIN</b>	
Gasteizko gazteei gure gizartearen emakumeekiko indarkeriari buruzko informazioa helaraztea, fenomenoaren ezagutua, eta indarkeria mota horren aurkako kontzientzia eta lankidetzaren bultzatzea	
Ahulezia egoera berezian dauden taldeetako gazteengan emakumeekiko indarkeriari buruzko informazioa helaraztea	
Gazteei etxeko lanetarako, eta besteak eta norberaren burua zaintzeko trebetasunak bereganatzea ditzatela lortzea	
Gasteizko 14 eta 30 urte bitarteko gazteek (neskek eta mutilek) etxeko zereginak egiten ematen duten denbora-aldeak berdintzea bideratzea	
Prebentzioa garatzea gazteen artean (15-29 urte-tartea), eskubide-berdintasuna eta desberdinekiko errespetua sustatzeko, bai eta pertsonen artean errespetuzko harremanak eragin ditzaketen dituzten gaitasun pertsonalak areagotzeko	

EUSKERAREN EGUNA
WORLD COFFE GAZTEEKIN. 100 gauza euskaraz bizitzeko
"EUSKERA ETA GAZTEAK" IKERLANA
"Gazte Go – Gazteak ekinean" GAZTE-TRUKE PROGRAMAKO HARRERA-JARDUERA GASTEIZEN

<b>IKASTARO ETA LANTEGIAK GIZARTE ETXEETAN, BIZIKLETAREN ERABILERA SUSTATZEKO</b>
<b>BIKE STATION ABIAN JARTZEA</b>
<b>BICICAMPUS KANPAINA</b>
<b>BIDEZKO MERKATARITZARI BURUZKO SENTSIBILIZAZIOA, LUDOKLUBETAN</b>

<b>AUTODEFENTSA LANTEGIAK LUDOKLUBETAN</b>
<b>EMAKUMEEKIKO INDARKERIARI BURUZKO LANTEGIA (HELDUENTZAKO HEZKUNTZA)</b>
<b>EMAKUMEEKIKO INDARKERIARI BURUZKO PRESTAKUNTZA (HELDUENTZAKO HEZKUNTZAKO ETA LANBIDE HEZIKETAKO PRESTATZAILENTZAT)</b>
<b>NORK BERE BURUA ZAINTEARI BURUZKO IKASTAROAK, IKASTETXEETAN</b>
<b>ERANTZUNKIDETASUNEAN SENTSIBILIZATZEKO KANPAINA</b>

## 4. ARLOA: INTEGRAZIOA ETA GIZARTEKOITASUNA

Lerro honen harian, honako erronkei egin nahi diegu aurre:

**Gasteiz, egoera sozial okerre aurre egiten dien hiria.** Elkartasun-kontzientzia aintzat hartuta –nola herritarrengan oro har, hala gazteengan bereziki–, egoera sozial okerre aurre egingo dien gizarte-eredua bideratu nahi dugu, gazteei herritar oso eta eskubide eta betebeharreran berdin diren sentipena garatzeko aukera bete emango diena. Arrisku-jokamolde eta -egoerei aurre hartzen saiatuko gara, hala nola absentismoan, kontsumo txikietan, eta osasun- eta elkarbizitza-ohituretan, betiere alor horietan zeresana duten sail eta zerbitzuekin batera lan eginez.

**Gasteiz, gazteentzako topagune eta elkarbizitzarako lekua.** Jatorria, ideiak eta sinesmenak albora utzi, eta kultura eta hizkuntza izenburuko bi kontzeptuak garatzeko tresna hartuta, gazteei aberasgarri gerta dakien elkarbizitzara bideratzeko grina.

**Sormena, elkartzea eta aisialdia abiapuntu, hiri-kultura sortzen duten gazteak...** hartara, gazteak eurak hiriaren garapen-faktore bihurtuko dira, euren kultura mestizoa sortuko dute, aniztasun handi horren baitan nor bere etxeko ekarpenak eginez.

Prozesu hezgarriak gazteengan balizko egoera sozial makurrak prebenitzeko eta gaitzitzeko duten garrantzia aintzat hartuta, eskola-absentismoari aurre egin, eta formazioa eta prebentzioa sustatzearen alde lan egin behar da. Prebentzio-papera indartzeko, lan hau diziplina anitzeko bide koordinatuetan garatu behar da.

Aisialdiak, kirolak eta kulturak funtsezko papera jokatzen dute gazteen arteko elkarbizitzan; hor ikusten da zenbateraino den garrantzitsua alor horietan bizikidetzeta eta elkarren arteko harremana jorratzea. Jatorri desberdineko gazteen arteko harremanak etorkizuneko egoera desiragarriak (esaterako kulturarteko bizikidetzeta eta mestizai egoerak) aurreratzen dituen laborategia da.

Lonja eta etxabeekin loturiko gazte-aisialdiari dagokionez, zeharkako lana egingo dugu: auzi horrek gure hirian dituen dimentsioak aztertuz, berari ekiteko modua adostuz, gazteak segurtasun eta elkarbizitzaren oinarritzko jarrerak errespetatu behar diren garrantziaz kontzientziatuz, eta osasun ohiturak hobetzen lagunduz. Horretarako, garrantzitsua deritzogu alderdi positiboak azpimarratzea (gizartekoitasuna, topaleku izaera, erantzukizuna eta autoantolaketa), eta gatazkatsuenak hobetzen saiatzea (auzokideekiko bizikidetzeta, kontsumoa, higiene- eta segurtasun-egoera), gazteak beraiek inplikatzuz.

**4. lerroa Integrazioa eta gizartekoitasuna**

**1. ERRONKA  
Gasteiz, egoera sozial okerre aurre egiten dien hiria**

**KOORDINAZIOA HANUPekin / HEZKUNTZAREN PLAN ESTRATEGIKOAREKIN / DROGAMENDEKOTASUNAREN TOKIKO PLANAREKIN / OSASUN PLANAREKIN**

Zeharkakotasunaren irizpideen arabera, "desabaintaila" kontzeptua adostea, bai eta jokamolde prebentibo komuna, 14 eta 18 urte bitarteko gazteengan honako kasuak gertatzen direnean: eskola-porrota, familia desegituratuak, egoera sozioekonomiko eta osasun-ohitura desegokiak...

Eskola absentismoaren datuak gutxitzea 14 eta 16 urte bitarteko gazteengan

Kontsumo datuak gutxitzea gazteen artean

**PREBENTZIOARI ETA ARRISKU-JARDUEREN GAINKO ZEHARKAKO LANTALDEA**

**GAZTEEN LONJETAN GERTA LITEZKEEN ARRISKUEI AURRE HARTU ETA KUDEATZEKO PROGRAMA**

**2. ERRONKA  
Gasteiz, gazteentzako topagune eta elkarbizitzarako lekua**

14 eta 20 urte bitarteko gazteen parte-hartzea suspertzea Gasteizen normaltasunez aritzen diren erakundeen boluntariotza eta lankidetzako programen bidez antolatzen dituzten aisialdiko, kultur eta kirol jardueretan, bitartez, gazte horien jatorrizko kultura inportik gabe

Jatorri atzeritarreko gazteak esperientzia eta jardura positiboaren protagonista gisa ikustaraztea, esparru guztietan: kultura, kirola, parte-hartzea, ingurumena...

14 eta 20 urte bitarteko gazteek beren jatorriko kultura konpartitzea, testuinguru ludiko eta aisialdikoetan

Jatorri atzeritarreko gazteen artean euskara ikasi eta erabiltzearen aldeko jarrera sustatzea

Bizikidetzaren aldeko eta gatazkak bakebidez konpontzeko prestakuntza sustatzea gazteekin lan egiten duten hezitzaile/bitartekarien artean.

**LUDOKLUB2-ko ASTEBURUKO EKIMENAK**

**PORTRAIT (GAZTE IRUDIA)**

**"HANGAR GTZ" JAIALDIA**

**BERARIAZKO INFORMAZIO ZABALTZEA, AISA PROGRAMAKO GAZTEEENTZAT**

**GATAZKAK KONPONTZEKO TRESNETAN PRESTATZEKO TAILERRA**



#### 4. lerroa Integrazioa eta gizartekoitasuna

##### COORDINAZIOA DROGAMENDEKOTASUNAREN TOKIKO PLANAREKIN / OSASUN PLANAREKIN

Gasteizen lonjen fenomenoaren zertan den jakitea

Gazteei lonjetan eurak beraiek topagune-, aisialdi- eta sormen-proiektuak garatu ahal izateko bideak eskaintzea

Udalaren sail inplikatuak lonjekiko jokabide-irizpideak zehaztea, adostasunaren bidez

Gazteen aisialdirako espazio autogestionatuak eta hiriko bestelako interesak normaltasunez bizi uztartzen asmatzea

Gazteei erreferentziazko leku publikoak eskuratzeko, topagune-, gizartekoitasun- eta sormen-leku gisa.

Udal espazioak gazteek eurek sortutako proiektuak (sormenezkoak, harremanezkoak, kulturalak...) garatzeko baliabide bihurtzea, beti ere gazteen aisialdi-aukeretara egokitutako orduetan

LONJEN INGURUKO LAN-PLANA

GASTEIZKO LONJEN ERREALITATEARI BURUZKO AZTERLANA

GAZTE-LONJEI BURUZKO LANTALDEA

ALOKATZEKO LONJEN POLTSA

LONJEN GAINEKO GOMENDIOAK

GUTXIENEN KONPROMISOAK

GAZTE FACTORY

#### 3. ERRONKA topagunearen kultura sortzen duten gazteak

## 5. ARLOA: GAZTEEN EGOERA IKUSTARAZTEA ETA ZEHARKAKOTASUNA.

5. lerroak zeharka hartzen ditu beste guztiak, guztiengan dauka eragina, guztiak inplikatzeko dituzte, bai eta zentzu bikoitz batean bultzatu: batetik, gazteek aurreko lau lerroetan jasotako eremuetan egiten dutena ikusaraziz, ikusgai bihurtuz; bestetik, jardueren arteko koherentzia bermatuz, zeharkakotasuna lagun.

Honako hauek dira lerro honetan adostutako erronkak:

- **“Gasteiz, gazteak baloratu eta errespetatzen dituen hiria”, eta “gure hiriko gazteak, presente eta protagonista”.**
- **“Gazteria zeharkako bihurtzera jotzen duen udal antolakuntza, gazteria bere zerbitzu eta sail guztien, bai eta beste erakunde batzuen ekintzaren hartzailerik gisa ulertzearen bidez”.**

Bai I. Planaren ebaluazioak, baita errealitatearen analisiaren inguruan egindako azterlanek ere, lerro honetako ardatzak zehazten dituzten bi elementu garrantzitsu erakusten dizkigute: ikustarazpena eta zeharkakotasuna.

Gazteei buruzko irudi soziala gatazkarekin eta arrisku egoerekin lotuta agertzen da, nola komunikabideetan, hala iruditeria kolektiboan ere; alabaina, errealitateak erakusten digu gazte gehienak normaltasunez hartzen dutela parte gizartean, era sortzaile eta aberasgarrian, nahiz eta ez den horrela islatzen errealitatean.

Hor ikusten da zenbateraino den beharrezkoa gazteak aktore sozial gisa **ikustaraztea**, eskubide betetzeko herritar gisa, horrek berekin dakartzan eskubide eta betebeharrak aintzat hartuta. Horretarako garrantzitsua da:

- Gazteak mezuen hartzailerik aktibo gisa kontsideratzea.
- Gazteei beraiei eta gizarteari gazteei buruzko irudia zabaltzeak sortzen duen erantzukizunaren jakitun izatea.
- Gazteen arduragabekeriaren eta heldutasun ezaren inguruko topikoak alboratzea.
- Gazteriaz kolektibo homogeen eta berdina bailitzan aritzeko joera alboratzea. Zenbait egoera edo gertakari gazte guztiengana zabaltzea saihestu asmoz, albisteak testuinguruan kokatzea, batez ere gazte inplikatuaren talde sozialarenean.
- Gazteak beraiek albistearen protagonista bihurtzea.
- Gazteak protagonista dituzten albiste positiboak nabarmentzea.
- Informazioa ematerakoan, gertakari positibo eta negatiboak orekaz tartekatzea.
- Albistearen testuingurua baloratu eta neurrian jartzea, egiari eta orekari men eginda informatzeko asmoz, betiere morboa saihestuz .

Irudiaren aldaketa horretan urratsak emateko, komunikazioaren arduradunekin (komunikabide eta eragile sozialak) lan egin behar da, beraiek baitira gazteei buruzko mezuen sortzaileak.

Bestalde, garrantzitsua da baita zeharkako lanean **sakontzea**, aintzat hartuta Udalaren sail gehienek eragiten dutela zuzenean gazteengan, baita beste batzuek zeharka ere. Izan ere, sektorekako politikak bere gain hartu behar dituzte gazteen behar eta eskariak, eurenak beraienak balira bezala.

Beraz, Udalaren Gazte Plan hau Udalak bere osoan hartu beharrekoa da, Gazteria Zerbitzuaren sustapen eta ardurapetik haratago.

Ondorioz, Udalaren II. Gazte Planak Gasteizko gazteei eragiten dieten politika guztien bizkarrezurra izan nahi du, hots, Udalaren baitan ezagutua eta kontuan hartua izateko bokazioa du. Ikuspegi desberdinetatik baina koherentziaz gazteen kolektiboari begira egindako politiken arteko sinergiak sorrarazi behar dira, gazteekiko ardura eta erantzukizuna duten beste erakunde batzuekin lankidetzeta eta koordinazioa zabaltzeko bide gisa.


Hona, laburbilduta, lerro honetan eman nahi ditugun aurrerapausoak:

Aurreko lauetan planteatu ditugun guztiak lortzen laguntzea, komunikazioa eta zeharkako jarduera abiapuntuan:


- Guztion artean gazteei buruzko irudian eragitea, mezuak sortu eta sozialki zabaltzen dituztenak sentiberatuaz, irudi horien garrantziaz ohar daitezen.
- Zeharkakotasuna –Udal barrukoa eta baita erakundeen artekoa–, ikuspegi desberdinetatik abiarazitako ekimenak koordinatzeko tresna gisa garatzea.

**5. lerroa Gazteen egoera ikustaraztea eta zeharkakotasuna**

**1. ERRONKA**  
**Gasteiz, gazteak baloratu eta errespetatzen dituen hiria**




**2. ERRONKA**  
**Gasteiz, gazteak present eta protagonista dituen hiria**



**3. ERRONKA**  
**Gazteria**  
**zeharkako**  
**bihurtzera**  
**jotzen duen**  
**udal**  
**antolakuntza**

**5. lerroa** **Gazteen egoera ikustaraztea eta zeharkakotasuna**



## **GASTEIZKO UDALAREN II. GAZTE PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA**

Ebaluazioa hobekuntzarako tresna da; horrela ulertu behar da baita udal-eremuan ere. Udal Gazte Planaren kasuan, ebaluazioak kolektibo hartzailearen errealitatean izandako aldaketak eta egindako aurrerapausoak definitzen lagunduko digu, bai eta gure jarduerak horretan izan dezakeen eragina neurtzen ere.

Udalaren Gazte Planaz hitz egitean gazteak –herritar diren neurrian–, Udaleko Sail guztiek bideratutako politiken subjektu eta objektu direla esan nahi dugu; beraz, Plan honen nahitaezko ezaugarri dira:

- Sail guztiak erantzunkide izatea.
- Auzi zehatzak sarritan kontsentsu bidez jorrazeko bokazioa, Udalaren jarduera koherentziaz jantzi asmoz.
- Gazteria Zerbitzuko Gazte Planaren Bulegoak koordinatu eta sustatuko izatea.

Udalaren II. Gazte Planaren baitakoa den jarraipen- eta ebaluazio-sistemak honakoak lortzen lagunduko duen tresna izan behar du:

- Udalaren II. Gazte Planean aurreikusitako jardueren gauzatze-maila baloratzea.
- Eraginkortasun-maila (hots, Planean zehaztutako helburuak lortzeko gaitasuna) neurtzea.
- Proposatutako jarduera-lerroetan aurrerapausoak definitzea, adostasun bidez gureganatu ditugun erronken bidean.
- Aurreikusitako planifikazioa birbideratzea, baldin eta planifikazioaren abiapuntukoa nabarmen aldatu bada, eta behar berriak aurkitu badira.

Udalaren II. Gazte Planaren kasuan, beharrezkotzat jotzen dugu gorago aipatu ditugun helburuei erantzungo dieten, eta, aldi berean eragile inplikatu guztiek ezagun duten tresna arin, Planak zehazten dituen ekintza eta helburu guztietara egokitzeko modukoez hornitzea, hitz batean esateko, gazteriarentzako politikak hobetzeko tresneria.

Udalaren Gazte Plana gazteen bizi-kalitatea eta eskubide eta betebeharren jarduna hobetzeko proposamena da, udal esparrutik ekinez (udalekotzat ulertzen dugu zuzenean edo zeharka gazteen kolektiboari eragingo dieten zerbitzu eta sail guztien osotasuna). Hori dela eta, jarraipena eta ebaluazioa ere –planifikazio egin antzera–, konpartituta eta adostasunean oinarritu behar da.

Gure ustean, diseinuaren ebaluazioa egina dago aurretiaz; izan ere:

- Abiapuntu den errealitatearen diagnostikoa egina dugu.
- I Gazte Planaren alde indartsuak eta ahulak aztertu ditugu.
- Plana osatzeko prozesuaren fase bakoitza hiru mailatan (teknikariak, politikariak eta elkarteetako ordezkariak) jorratu eta adostu izan da.
- Konpromisoak, epeak eta hitzarmenak zehaztu dira Sail eta Zerbitzu arduradun bakoitzarekin.

Beraz, oraindik prozesua eta emaitzak ebaluatzeko tresnak zehaztea falta zaigu.

## **PROZESUAREN EBALUAZIOA**

Plana aurreikusitako helburu eta adierazleen arabera baloratu nahi du, eta – planifikatutakoa aldarazi beharko balitz– baita horren ondoriozko erabakiak hartzeko prozesua gidatu ere.

Prozesuaren ebaluazioa egiteko funtsezko bi tresna erabiliko ditugu: behaketa jarraitua, eta helburuak zenbateraino lortu diren neurtzeko datu esanguratsuen bilketa.

## **Udalaren II. Gazte Planaren jarraipena**

Jarraipena Planak baitan hartzen dituen ekintzak kontrolatu eta kudeatu egingo direla bermatu nahi du, baina ez da ekintza zehatzetara mugatzen:

- **kudeaketaren** jarraipenaren bidez ekintzak aurreikusitako unean, beharrezko baliabideekin, eta alde inplikatu guztien aldetik abiarazi diren aztertu nahi dugu;
- **emaitzen** jarraipena planifikazioan adierazitako adierazle kuantitatibo eta kualitatiboen arabera egingo da.

Jarraipenaren funtsezko tresna, aurreikusitako adierazleetan oinarritutako behaketa da, nola ekintzak xede dituen helburu orokorretan, hala espezifikoen ere.

Hitz bitan esanda, Sail edo zerbitzu bakoitzak egingo du jarraipenaren **lehen fasea**, ekintza bakoitza gauzatzeari buruzko informazio sistematizatu eta jarraitua bilduz. Gazteria Zerbitzuak aldi berean eskatuko du informazio hori.

Orain arte garatu dugun eskemaren haritik, jarraipenaren **bigarren fasea** hiru mailatan egingo dute:

- Elkarrekin kideen Gazte Planaren Jarraipen Batzordeak.
- Batzorde politikoak.
- Sail arteko Batzorde Teknikoak.

Jarraipen-lanak honakoa eskatuko du hiru batzordeetan:

- Lehen faseko datuetan oinarritutako informazioa.
- Testuinguruaren balorazioa: bertan gazteen errealitatearen bilakaera, adierazle ekonomiko eta sozialak, eta atzemandako joerak jasoko dira, ekintza, programa eta zerbitzu guztietan oinarri hartuta, behatoki funtzioa bete asmoz.
- Egindakoaren balorazioa eta proposamenak.

Gure ustean, jarraipen-lanak sei hileroko aldizkakotasuna eta hiru mailatan egitea eskatzen du; alabaina, gerta daiteke egoera jakin batzuen aurrean ekintza zehatz batzuen funtzionamendua aztertu behar izatea, birbideratzeko, indartzeko, edo era berezian lantzeko.

## **BITARTEKO EBALUAZIOAK**

Bitarteko ebaluazioen xedea Gazte Plana bere osotasunean eta denbora-tarte jakin batean baloratzea da: bere funtzionamendua, abiaraztea eta gauzatzea. Gure ustez urtero egin beharrekoa da, eta hiru jarraipen-mailatan.

Tarteko ebaluazioak honakoak hartuko ditu baitan:

- Urtean zehar egindakoa
- Planaren koherentzia, eta helburuen eta jasotako emaitzen arteko harremana egiaztatzea
- Jarraipen sistemaren balorazioa
- Eragingarritasuna aztertzea, eta errealitatean ikusitako aldaketen arabera beharrezko egokitzapenak zehaztea.

## **EMAITZEN EBALUAZIOA**

Hona emaitzak aztertzeko erabiliko diren irizpide nagusiak:

- **Eraginkortasuna:** aurreikusitako helburuak eta espero ziren emaitzen arteko lotura neurtu nahi du, hartzaile jakin batzuei begira, eta denbora-tarte jakin eta aurretiaz ezarritako baten arabera, helburuak eskuratzeko kostuei arreta egin gabe.

Informazioa adierazle, inkesta eta beste prozeduran batzuen bitartez eskuratu daiteke; behin informazioa eskura, Plana aplikatzen hasi aurretik (I. Gazte Planaren ebaluazioaren arabera) eta aplikatu ondorengo egoerak erkatu ahal izango dira.

- **Eragingarritasuna:** emaitzak neurtzen ditu, baina erabilitako baliabideak ere kontuan hartuta.

- **Estaldura:** programa jakin baten bitarteko biztanleria onuradunaren eta onura horien beharra duen biztanleria guztiaren arteko harremana da. Kontuan hartzen ditu honako datuak: erabiltzaileen profila, zerbitzu edo programari buruzko ezagutza- eta informazio-maila, zerbitzu edo programa erabiltzeko erraztasuna, programarekiko jarrerak, eskaria eta emandako eskaintza.

- **Asebetetze-maila,** Planaren hartzaileena. Ahal den guztietan, programa edo zerbitzuaren hartzaileen iritzia jasotzea komeni da.

Hitz batean esateko, Udalaren II. Gazte Plana aplikatzearen ondorio diren errealitate-aldaketen zehazten duten aurrerabidea marraztuko du, bai eta planteatzen diren behar edo/eta eskaera berriak.

Emaitzen ebaluazioa ere hiru eremuetan egingo da (elkarteetako ordezkariak, politikariak, teknikariak), aurrerantzeko planifikazioa diseinatzeko oinarria izango delarik.



## **GASTEIZKO GAZTERIAREN BEHATOKIA**

Behatokia gazteen errealitatea behatu, aztertu eta hari buruzko ezagutza osatzeko etengabeko tresna da. Behatokiak aipatu errealitateari buruz eremu guztietako adierazle esanguratsuak jaso eta aztertuz egiten du lan.

Errealitate etengabe aldakor horri buruzko ezagutza eguneratu eta sistematizatzearen, eta errealitate horretan suma daitezkeen etorkizuneko joerak aurkitzeko beharrak sustatu du Behatokiaren sorrera. Horregatik, bere lehen helburua gazteengan eragitea da, Udalaren II. Gazte Planak eskaintzen dituen erantzunak gazteen behar eta itxaropenen arabera egokituz.

Udalaren II. Gazte Plan honetan inplikatu diren udal eragile guztiei banatuko zaizkie Behatokiaren informazioa eta analisiak. Ikuspegi horretatik, beraz, tresna baliagarria bihurtuko da, ez soilik berriaz gazteriaren inguruko gaietarako, baita gazteei eragiten dizkieten politika zeharkako eta sektorekoak diseinatzeko laguntzeko.

### **ZERGATIK?**

Udalaren II. Gazte Planaren helburu diren gazteak eta beren errealitatea, tresna hau adierazle esanguratsuak jaso eta aztertzeko egitura integratu eta global gisa utzi behar dugu, errealitate horren bilakaeraren azterketa izango baita aurrera begirako joerak aurreikusteko lanabesa.

Errealitatea ez dago tankan itxiriko konpartimentutan banatuta, ezin dugu errealitatea Udalaren eremu berezitu bakoitzetik eginiko analisi zatikatutara mugatu. Gure ustean, adierazle bakoitzak, datu bakoitzak, zentzua dauka baldin eta planteamendu global jakin batean kokatzen bada, adierazleen bilakaera konparatzeko aukera emateko moduan, sarri askotan elkarlotuta daudelako; esaterako, eskola-uzte goiztiarra eta enplegu ez kualifikatua, absentismoa eta kontsumo txikiak, 30 urte baino lehenagoko emantzipazio-tasa txikia eta gazte-lonjen fenomenoaren hedapena.

